Goienka2a

BILDUMAGILEAK EUREN EMAITZAK ERAKUSTEN




KIROL ELKARRIZKETA: PSIKOLOGOAREN AHOLKUAK GURASOEI /10

# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2006ko urtarrilaren 27a • VI. urtea • 229. zenbakia • DOAN BANATZEKOA




**LEINTZ GATZAGA**

**Autobus zerbitzua ipiniko dute astelehenean /6**

**AIZPEA OTXANDIANO** / INFO7 IRRATIA

*"Euskal Herri osorako emitituko duen irrati nazionala izan gura du Info7-k"* **/7**

**ANTZUOLA**

**Iturbeandia baserria kultura ondare izendatu dute /6**

ASTEKO GAIA: IZARTU PROGRAMA DEBAGOIENEAN

# Hainbat herri berritzeko dirulaguntza

Eusko Jaurlaritzaren Izartu programaren bidez, Debagoieneko lau herrik, guztira, 4.282.014 euroko dirulaguntza jasoko dute herrian gainbeheran dauden guneak berritzeko. Ibarreko sei herrik egin zuten dirulaguntza eskaera, baina azkenean bakarrik Antzuolak, Arrasatek, Bergarak eta Eskoriatzak lortu dituzte.

EAEko dirulaguntza programa handienetako bat da Izartu; esaterako, aurten 124 udalen eskaerak jaso ditu Jaurlaritzak, eta onartu dituen proiektuetarako 109 milioi euroko partida du. Bigarren deialdia izan da hau, eta, aurrekoan ez bezala, auzoetan eta hiri barrutietan eraberritze lanak lagunduko dituzte. **/2-3**

## 'Ignaziotar Lurraldea' produktua aurkeztu du Debagoienak Fiturren

*Ignaziotar Lurraldea* delako turismo produktua aurkeztu du Debagoieneko Mankomunitateak Fitur azokan. Madrilen egiten ari dira azoka hori, eta munduko garrantzitsuenetako bat da. Arantzazuko Santutegia abiapuntu hartuta, gure eskualdeko eta beste batzuetako ondarea erakusten du *Ignaziotar Lurraldea*-k. Horrez gain, ibarreko ohiko eskaintza ere Fiturren dago. **/4**




LEIRE KORTABARRIA

## 'Kantu eta Jolasak' DVDa gertu dago

Gurasoei umeekin euskaraz jolasten eta abesten laguntzeko, *Kantu eta Jolasak* DVDa prestatu dute Mankomunitateak eta ibarreko Udal Euskara Zerbitzuek, ikastetxe guztiekin elkarlanean. Horrekin batera, hizkuntza zalantzei aurre egiteko aholkuen liburuxka bat ere egin dute. Biak batera datorren astean banatuko dizkiete ikastetxeetan Debagoieneko 4 eta 8 urte bitarteko ume guztiei. Biltzen diren kantuak jolasean abestekoak dira, eta, kasu batzuetan, abestiaz gain, jolasa bera ere azaltzen da. Guztira, 21 abesti eta jolas dira. Euskaraz dakiten zein ez dakiten gurasoendako da materiala. Argazkian, andereñoa 4 urteko umeei liburuxka erakusten. **/5**

## Datorren astean, 'Goienkaria' berritua

GOIENKARIA berritua jasoko duzue datorren egubakoitzean. Goitik behera dator aldatuta, itxuraz eta edukiz. Edizio bakarrekoa izango da, koloretsuagoa, 56 orrialde edukiko ditu, informazioa hobea jasoko du…




BARRUAN GEHIGARRIA

DEBAGOIENA

## Tranbia baino lehen saihesbidea egin gura du Oñatik

Oñatin oraintsu bukatu da tranbiari alegazioak ipintzeko epea, eta 35 aurkeztu dituzte herritarrek, eta beste batzuk Udalak. Ondorioetako bat da Udalak gurago duela lehenengo saihesbidea egin dezaten tranbia baino.

Eskoriatza falta da alegazioak ipintzeko; besteen alegazioei oraindik ez diete erantzun. **/5**

Irabazlea salmentetan eta irabazlea Montecarlon 2006an.




MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
Gozatzeko pentsatuak, irauteko eginak
Ford

DEBAGOIENA/4-5 • HERRIZ HERRI/6 • IRITZIA/8 • KIROLA/10-11 • NON-ZER/16-17 • SAILKATUAK/18 • ESKELAK/19 • DENBORA-PASA/21 • TELEBISTA/22

# Gainbehera datozen guneak indartuz

## Izartu programaren bidez, 4,2 milioiko dirulaguntza jaso du ibarrak hainbat gune berritzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Obrak, garabiak, lur mugimenduak nonahi ikusten ditugu ibarreko herri gehienetan. Debagoiena berritzea, hobetzea, garatzea da helburu, eta garapen bide horretan laguntza ezinbestekoa da: biztanleena, erakundeena, Udalena… Eusko Jaurlaritzak garapen bide hori sustatzeko ere ematen ditu laguntzak. Laguntza programen artean dago Izartu. Egoera okerrenean dauden eremuen diskriminazio positiboan oinarritutako programa da. Debagoieneko lau herrirendako laguntzak onartu berri dituzte: guztira, 4.282.014 euroko laguntza.

Lehen deialdia amaitu eta programak arrakasta izan ostean, bigarren aldiari ekin zioten. Bigarren fasean 109 milioi euroko kopurua izango da laguntzatan. Izan ere, aurrekoan izandako emaitzek areagotu egin dituzte eskariak, ia bikoizteraino. EAEko 124 udalek eskatu dizkiote laguntzak Eusko Jaurlaritzari. Aurreko fasean eskualde eta herri mailarako proiektuetara bideratu ziren, batik bat, laguntzak; bigarrenean, aldiz, auzoetan eta hiri barrutietan esku hartzea aurreikusi zuten.

Izarturentzat oinarrizkoa da tokian finkatzea programaren ardura. Horretarako, udal arduradunek kudeatuko dituzte programak. Izan ere, herri bakoitzeko premiei erantzun ahal izatea da Izarturen asmoa eta nahia.

**LAU HERRITAN**

Debagoienean sei herrik aurkeztu zituzten eskariak, baina lauk baino ez dituzte dirulaguntzak jasoko.

Antzuolako Udalak aurkeztutako proiektuak honakoak izan ziren: Uzarragatik Lizarragarako errepidea; alde zaharra berritzea; Ibarre auzoa urbanizatzea; Sagastiko parkea hobetzea; eta gizarte edo kultura etxea. Jarduera guztiak onartu zituzten, Ibarrekoa izan ezik.

Arrasaten, Santa Marinan, Makatzenan eta Santa Teresan hainbat lan egiteko aurkeztu zituzten egitasmoak. Programa honen bitartez lortutako dirulaguntzekin, besteak beste, San Frantzisko Xabier eta Zumardira bitartean igogailua jarri, Hondarribia kalean eskailera mekanikoak ipini eta plaza, lur azpiko aparkalekua eta umeendako parke bat egin nahi dituzte.

Bergarari dagokionez, Agorrosingo kirol gune berrirako; Zubiaurre Martoko, eta San Antonio kaleak urbanizatzeko; Artekalea, Arrurriaga eta Domingo Irala kaleak berrurbanizatzeko; Aroztegi jauregia egokitzeko; eta Santa Ana ermitaren ingurua urbanizatzeko egin ziren dirulaguntza eskaerak. Proiektu gehienak onartu dituzten arren, kirol gunerako eta Santa Ana ermita ingurua urbanizatzeko ez dute laguntzarik emango.

Eskoriatzako Udalak aurkeztutako proiektu guztiek ere Eusko Jaurlaritzaren baiezkoa jaso zuten. Aranburuzabala kalea eta Dorleta eta Santa Marina auzoak birgaitzeko laguntza eskatu zuen Udalak. Horretaz gainera, herri barruan lur azpiko edukiontziak ipintzeko; Eskoriatzako saihesbidean soinu-hesiak



EDU MENDIBIL

Bergaran, Artekalea birgaitzeko eman zituzten laguntzak; lanak abenduan amaitu dituzte.

HALCOURIER
MEZULARITZA ZERBITZUA
Juan XXIII plaza (barrualdean)
Tel.: 943 76 98 51
Faxa: 943 76 98 52
bergara@halcourier.com
Zure pakete eta dokumentuak bidali eta jasotzen ditugu

Talaverako axuleiuekin egindako **ispiluak salgai**


298€


189€


289€

ERAKUSKETA ETA SALMENTA Juan XXIII plazan (barrualdean)



AINTZANE IRIZAR

**Antzuolan, Uzarraga eta Lizarraga arteko bidea konpontzeko lanak aurrera doaz.**



EDU MENDIBIL

**Bergaran, Arostegi etxea erakusketa areto bihurtu dute Izarturen laguntzaz.**



UBANE MADERA

**Arrasateko Makatzena auzoa birgaitzeko eskatu dituzte laguntzak Jaurlaritzara.**



IKER BARANDIARAN

**Eskoriatzako Dorleta auzoa ere berrituko dute Izarturen laguntzarekin.**

## Ibarreko asmoak

### ANTZUOLA
- Uzarraga-Lizarraga bidea
- Alde zaharraren urbanizazioa
- Alde zaharra oinezkoendako ipintzea
- Sagasti parkearen hobekuntza
- Kultura etxea-Gizarte etxea

Inbertsioa: 3.899.956 €
Izarturen laguntza: 1.169.987 €

### ARRASATE
- Makatzena auzoa biziberritzea
- Agerre-Santa Teresa auzoa biziberritzea

Inbertsioa: 3.066.685 €
Izarturen laguntza: 1.533.343 €

### BERGARA
- Artekale-Arruriaga kaleak birgaitzea
- Aroztegi etxea egokitzea
- Zubiaurre-Martokua eta San Antonio auzoetan jarduerak
- Domingo Irala kaleko urbanizazioa eta lur azpiko aparkalekuak

Inbertsioa: 4.852.280 €
Laguntza: 1.455.684 €

### ESKORIATZA
- Bidegorriak, trenbideko plataforma zaharra biziberrituz
- Hesi akustikoak
- Lurpeko edukiontziak
- Dorleta auzoko urbanizazioa
- Santa Marinako urbanizazioa
- Aranburuzabala kaleko urbanizazioa

Inbertsioa: 123.000 €
Laguntza: 123.000 €

jartzeko; eta trenbide zaharra aprobetxatuz bidegorria egiteko ere emango dituzte laguntzak.

**BALDINTZAK**

Programan parte hartzeko eskaria ezin du edozeinek egin; horretarako zenbait baldintza ipintzen ditu Eusko Jaurlaritzak, dirulaguntzak ematen dituenak. Eskaria aurkez dezakete gainbehera etorritako guneren bat duten EAEko herriek; Izarturen lehen fasean parte hartu zutenek, 2003 amaierarako inbertsioen %30 egina badute. Herri bakoitzeko egitarau bakarra aurkeztu ahal izango da.

Bestalde, gune hori gainbehera etorritakoa dela ziurtatzeko, gizarte, ekonomia eta lurral-

*EAEko 124 Udalek egin dituzte eskariak; ibarrean lauk jasoko dituzte laguntzak*

deari dagokionez zenbait gabezia daudela adierazi beharko da: demografiaren garapena, hezkuntza, lan merkatua, etxebizitzetako instalazioak, zerbitzuak… izan daitezke eremuaren gainbeheraren adierazle.

Gainera, kontuan hartu beharko da programa bakoitze-

*Gizarte, ekonomia eta lurralde gabeziak daudela adierazi beharko dute eskatzaileek*

ko gutxieneko inbertsioa 2.500.000 eurokoa izan behar dela eta, bizilagun bakoitzeko, 500 eurokoa.

**BALORAZIOAK**

Udalerriek euren egitarauak aurkeztu ostean, hauen balorazioa egingo dute adituek diru laguntzak eman ala ez erabakitzeko.

*Proiektuek gizartean izango duten eragina kontuan hartuko da laguntzak emateko*

Lehenik eta behin, eremuaren arazo sozio-ekonomikoek zenbaterainoko garrantzia duten ikusiko dute, eta hori azaltzen duen txostenak kalitatezkoa izan beharko du. Horretarako, txostenak egiteko orduan parte-hartze zabala ezinbestekoa izango da. Proiektuak onar ditzaten, izaera berritzailea eduki behar dute eta gizartean zein eragin izango duen ere kontuan hartuko da.

**ZENBATEKO DIRU LAGUNTZAK**

Eremua gainbehera etorri dela adierazten duten irizpideen araberako balorazioa egin eta gero, hainbat dirulaguntza mota jaso ahal izango dituzte herriek. Bi irizpide betez gero, inbertsioaren %30 (bi milioi euro gehienez) jasoko dute; hiru betetzen dituztenek %50era bitarteko laguntzak (gehienez lau milioi euro); eta inbertsioaren %75era bitarteko laguntza (bederatzi milioi euro gehienez) lau irizpide edo gehiago betez gero. Dirulaguntza hauek osorik dira udalarendako, hau da, ez dira itzultzekoak.

# Diruz lagundu daitezkeen jardunak

**Asko dira laguntza behar duten eremuak; asko gainbehera etorritakoak baina programa honen bidez gune batzuk baino ezin dira lagundu.**

**Horretarako kontuan izan behar da programaren helburu nagusia zein den: gainbehera etorritako edo baztertutako guneak suspertzea.**

**Guneek ez ezik eremu zehatzetan bizi diren taldeek ere jaso dezakete laguntza; baldin eta gizartean zein lan arloan bazterkeria jasotzen badute. Izan ere, euren aldeko diskriminazio positiboa egiten da.**

**Gainera, kontuan hartuko dira laguntzak eman eta aurkeztutako proiektuek aurrera eginez gero eragina izatea herriak lurraldean integratzeko.**

**Ingurumena zaintzeko ere egingo dira jardunak; bai ingurua hobetuz edo honi kalte egiten dioten ekintzak gutxituz.**

**Informazio eta komunikazio arloko teknologiak txertatzeko, enpresei, turismoari zein Udal ondareari laguntza emateko; eta berreskuratze proiektuen bidez herrien irudia hobetzeko jarduerak ere diruz laguntzeko modukoak izango dira.**

# Laguntzarik gabe

**Eskaria egin zuten Udalen artean Aretxabaleta eta Elgetakoa daude, baina hauek ezezkoa jaso dute Eusko Jaurlaritzatik; proiektuek baldintza minimoak betetzen ez zituztelako.**

**Elgetan Mendi Museoa egiteko eskatu zuten diru gehien. Honetaz gain, Salbador kalea oinezkoendako egokitzeko, Maalako parkerako, herri barruan aisialdirako guneak egiteko eta udaletxeko berrikuntzetarako ere eskatu zuten diru laguntza. Beraz, proiektuok egiteko beste bide batzuk jorratu beharko dituzte.**

**Aretxabaletan Santutxuko biribilgunerako, parrokiaren atzeko zubirako, Otalora kalea birgaitzeko eta kultura etxe berria egiteko nahi zituzten Izartu programako laguntzak.**




FITUR

Fitur azoka turismo arloko garrantzitsuenetako bat da mundu osoan, eta Debagoiena ere hantxe dago. Irudian, Txinaren postua.

# 'Ignaziotar Lurraldea' turismo produktua aurkeztu dute Fiturren

*Debagoieneko eskaintza Fitur azokan erakutsiko dute domekara arte*

LEIRE KORTABARRIA

**Debagoieneko turismo eskaintza Fitur azokan erakusten ari dira ibarreko turismo arduradunak, Madrilen. Aurtengo berritasuna *Ignaziotar Lurraldea* delako turismo produktua da, eta bere erakustoki propioa du azokan.**

Debagoieneko arte, historia eta natura ondarearen mundu osoko milaka lagunek jasoko dute egunotan, Madrilgo Fitur turismo azokan. Joan den eguaztenean, hilak 25, zabaldu zuten, eta domekan bukatuko da; Debagoiena Euskadiri dagokion erakustokiaren barnean dago, Gipuzkoari dagokion sailean.

Aurtengo berritasuna, eta Debagoieneko turismo arduradunek eraman duten eskaintza garrantzitsuena, *Ignaziotar Lurraldea* izeneko turismo produktua da. Hala, Euskadiko erakustokian egoteaz gain, *Ignaziotar Lurraldea*-k bere erakustokia du. Mankomunitateko turismo teknikaria, Ana Eriz, Fiturren da egunotan, eta berak eman digu produktu horren berri gehiago: "Debagoienak Urola Erdia eta Urola Goienarekin egindako eskaintza da. San Ignazio hil zela 450. urtea da; hori aitzaki hartuta, eskualdeko arte eta historia ondarea erakusteko produktua da". Erizek dioenez, orain arteko Hiru Tenpluen Ibilbidean oinarritzen da, baina, hausnarketa baten ondoren, produktu hura aberastea erabaki zuten.

Hala, Arantzazuko Santutegia hartzen du erakargarri moduan, Loiolako Santutegiarekin eta Antiguako Basilizarekin batera. Artea, erlijiotasunaren historia eta natura uztartzen ditu, hortaz, *Ignaziotar Lurraldea*-k. Orain, ibilbide horren gaineko hizkuntza guztietako produktuak prestatzen ari da Mankomunitatea, eta laster izango dira eskualdeko turismo bulegoetan.

Horrekin batera, Debagoieneko herri bakoitzak bere eskuorriak dauzka erakusketan. Debagoienean senderismoa egiteko aukerak dira beste eskaintzetako bat; baita hemengo ostatuak, jatetxeak... ere.

Turismo teknikariaz gain, ibarreko honakoak ere egongo dira: Ernesto Murgiondo, mankomunitateko kultura arduraduna; Joxe Fernandez, Oñatiko alkate-ordea; Ines Aldai, Arrasateko Kultura zinegotzia; eta Juan Karlos Bengoa, Eskoriatzako alkatea.

> *Euskadiko erakustokiaz gain, 'Ignaziotar Lurraldea'-k bere postu propioa du*

**HARREMANETARAKO ONA**

Espainiako Estatuan egiten den turismo arloko azoka garrantzitsuena da Fitur, eta nazioarteko garrantzitsuenetako bat ere. Ana Erizek esan duenez, "arloko komunikabideekin eta bidaia agentziekin harremana egiteko ona izaten da" azoka.

Debagoiena zortzigarren aldiz da han; azokak berak 26. edizioa du. Guztira, 11.500 enpresa inguruk parte hartzen du, eta 102.000 langilek dihardute. Azokaren helburuak dira parte-hartzaileei elkar ezagutzeko eta harremanak egiteko aukera ematea: erakundeak, bidaia-agentziak, garraio enpresak, ostatuak... Gaur, egubakoitza, bitartean, profesionalendako azoka da; bihar eta etzi, publikoari zabaltzen diote.

# Zuhaitz Errasti ibarreko presoa higiene greban dago

*Elkartasuna adierazteko Poitiersera martxa egingo dute*

IRATI AGIRREAZALDEGI

**Zuhaitz Errasti aretxabaletarra preso dago Poitierseko kartzelan. Bere eskariak bete daitezen eskatzeko hilaren 18an higiene greba hasi zuen. Elkartasuna adierazteko, Poitiersera martxa egingo dute Debagoienetik bihar, zapatua.**

Abenduaren 15ean hasi zuen Zuhaitz Errastik "desobedientzia borrokaldia", eta ordutik hona ez du bisitarik jaso. Gainera, urtarrilaren 17an beste 30 egunez bisitak jasotzeko debekua ezarri zioten. Hala, egoera horren aurrean, Errastik higiene greba hastea erabaki zuen.

Zuhaitz Errastik eskatu du astero ordubeteko bisita; bisitak zapatuetan izateko aukera ematea eta bisitak txartelarekin edo bi aste lehenago eskatzea. Erantzunik jaso ez duenez, protestari ekin dio aretxabaletarrak.

Zuhaitzen egoera "larria" dela-eta hari elkartasuna adierazteko, bihar martxa egingo dute Poitierseko espetxera. Autobusa 06:00etan irtengo da Aretxabaletatik eta inguruko herrietatik ere pasako da jendea jasotzera.

Bestalde, Marixol Iparragirre preso eskoriatzarra Marsellako espetxean dago orain eta atxilotu zutenetik isolamenduan egon da. Iparragirrek eta bere mutil lagunak eskatzen dute bederatzi urteko euren semeak bisitak asteburuetan egiteko aukera izatea.

**KEPA URRA**

Kepa Urra preso aretxabaletarrak 14 urte beteko ditu espetxean domekan. Hori dela eta urtarrilaren 29an mendi irteera egingo dute Azbetik Hiruatxera Urraren omenez. Bueltan salda egongo da Urbaltzen eta 13:00etan kontzentrazioa egingo dute; iluntzean, berriz, luntxa egongo da Urbaltzen.



ASKATASUNA

Zuhaitz Errasti.



GOIENKARIA

Kepa Urra.

# Atxaga euskaltzain proposatu du Ana Toledo antzuolarrak

IRATI AGIRREAZALDEGI

Juan Mari Lekuonak Euskaltzaindian utzitako hutsunea betetzeko hautagai proposatu dute Bernardo Atxaga idazlea; eta oraingoz ez da beste hautagairik aurkeztu. Ana Toledo antzuolarrak, Xabier Kintanak eta Jose Luis Lizundiak egin dute proposamena.

**NAZIOARTEKO PROIEKZIOA**

Ana Toledo euskaltzain antzuolarrak bi arrazoi eman ditu Atxaga aurkezteko: Atxagaren obrak modu herritarra eta modu landua nahasten dituela eta nazioartean duen proiekzioa.

Euskaltzaindiaren martxoko batzarrean aukeratuko dute Lekuonaren ordezkoa.

KOMUNIKAZIO TALDE BATEK
Gazteak behar ditu merkataritza departamenturako
Eskaintzen da: 6 hilabeteko lan kontratua, mugarik gabeko egiteko aukera, soldata finkoa + aldagarria.
Beharrezkoa da euskara jakitea.
Hobe ibilgailu propioa edukitzea.
Ingurua: Debagoiena, Debabarrena, Urola.
Interesa duenak bidali curriculuma 5.124 A.P. Donostia posta kutxara.

Servimasa
Sukalderako altzariendako osagarriak
FAGOR etxetresna elektrikoak
• Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
• Baldintza ezin hobeak
Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

Hemen GARBIKETAK
Garbiketetan profesionalak gara
www.hemen-garbiketak.com
Intxartxueta 16 behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 48 45
Faxa: 943 71 30 58

# Gurasoei zuzendutako euskal kantu eta jolasen materiala banatuko dute

*Mankomunitateak, udalek eta ikastetxe guztiek elkarlanean egin dute*

LEIRE KORTABARRIA

***Kantu eta Jolasak* delako DVDa eta berarekin doan liburuxka bat gertatu dituzte Mankomunitateak eta Udal Euskara Zerbitzuek, eta datorren astean banatuko dizkiete ibarreko 4-8 urte bitarteko umeei. Gurasoendako produktuak dira.**




GOIENKARIA

**DVD eta liburuxka horiek jasoko dituzte 4-8 urteko umeek datorren astean.**

Debagoieneko Mankomunitateak eta ibarreko Udal Euskara Zerbitzuek argitaratu berri dute *Kantu eta Jolasak* DVDa eta, berarekin batera, *Biharko euskara gaur-Su futuro euskara desde hoy* liburuxka. Datorren astelehenetik aurrera hasiko dira ibarreko ikastetxe guztietan banatzen, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urtekoei eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoei. Debagoieneko ikastetxe guztiek lagundu dute bi produktuok egiten.

DVDa eta liburuxka gurasoendako dira. "Helburu nagusia da umeekin euskaraz jolasteko aukera eskaintzea. Izan ere, adin horretako umeak dituzten gurasoek, nahiz eta euskaldunak izan, jolas eta abesti gehiago ezagutzen dituzte gaztelaniaz, eta gabezia horri erantzuteko egin da DVDa". Era berean, egileek argitzen dute ez direla alde batetik kantuak eta bestetik jolasak, baizik eta "jolasekin kantatzeko abestiak".

Material hau guztia ume jaioberrien aita-amei banatu zitzaien *Zorionak* izeneko materialaren osagarria da; oraingoan, 4-8 urte bitartekoen gurasoendako.

**DVD-AN, 21 ABESTI**

DVDak abestiak batzen ditu. Laburrak direnez, euskaraz ez dakiten gurasoek ere erraz ikasi ahal izango dituzte. 21 abesti dira, bost motatakoak: zotz egitekoak, soka saltokoak, erritmo jolasak, esku-jolasak eta gomarako jolasak. Kasu batzuetan, jolasa zelakoa den ere azaltzen da DVDan. Letrak diptiko baten jasotzen dira. Abesti bakoitza ibarreko 16 ikastetxeetako batek landu du, eta 225 ume aritu dira grabaketan.

Liburuxka Kike Amonarriz filologoak eta soziolinguistak egin du. *Biharko euskara gaur*, euskarazko bertsioa, guraso euskaldunendako da, eta hizkuntza arloko zalantzei erantzuteko, hainbat aholku ematen zaizkie. Bestetik, *Su futuro euskara desde hoy* guraso erdaldunei zuzenduta dago: euskaraz jakin gabe umeari hizkuntzarekin zelan lagun diezaioketen, eskolako lanekin zelan lagundu... gai horiek ukitzen ditu.

*Materialaren helburua da gurasoei umeekin euskaraz jolasteko aukera ematea*

# Oñatiko Udalak tranbia baino lehen saihesbidea egin nahi du

*Eskoriatzan otsailaren 9ra arte jasoko dituzte alegazioak*

I.A.

**Tranbiaren proiektua ikusgai izan da Oñatin eta Eskoriatzan. Beste herri batzuetan bezala, hauetan ere proiektuaren gainean herritarrek egindako alegazioak jasotzen hasi dira. Oñatin 35 izan dira; honi Udalarenak gehitu behar zaizkio.**

Oñatiko Udalak dio tranbiaren proiektua beharrezkoa dela: "ibarrean garraio publikoak dituen gabeziak arintzeko bitarteko egokia izango da. Denbora aurreztea gain, ibilgailu pribatuen erabilera murriztuz ingurumena baldintzak hobetuko dira".

Hala ere, proiektuari zenbait alegazio zehatz egin dizkio Udalak. Besteak beste, hau dio: "Tranbia ezarri aurretik, ezinbestekoa da Zubillaga auzoko eta hiri barruko saihesbideak lotuz arau subsidiarioek aurreikusten duten saihesbidea eraikita egotea".

Udalaren alegazioez gain, herritarrek, ikastetxeek, enpresek zein Ereittenek ere aurkeztu dituzte; guztira, 35. Esaterako, herri barruan tranbiak karril bakarra izatea eskatzen dute; edo auzo batzuetan tranbiak geltokia izatea.

**ESKORIATZA**

Otsailaren 9ra bitartean alegazioak jasoko dituzte Eskoriatzan eta ez digute zehaztu zein eratakoak diren herritarren eskariak. Ibarreko gainontzeko herrietan egin diren alegazioek ez dute erantzunik jaso.

*Ibarrean orain arteko egindako alegaziek ez dute erantzunik jaso*

## DEBAGOIENEAN LABUR

### Jesus Alberdi 'Egileor' eta Jose Luis Gorrotxategi Bertso Egunean izango dira

Bihar, zapatua, Bertso Eguna ospatuko da Donostiako Kursaalean. 18:00etan hasita, areto nagusian izango da saioa. 60 urtetik gorako 11 bertsolarik irudikatuko dute 60ko hamarkadako bertso giroa; tartean dira Jose Luis Gorrotxategi osintxuarra eta Bergarako Jesus Alberdi *Egileor*. Ondoren, afaria eta jaialdia izango dira Kursaaleko Martin Berasategi jatetxean. Afal ostean, belaunaldi berrien ordezkari, bertsolari gazteagoek jardungo dute. Arratsaldeko saiorako sarrerak salgai izango dira Kursaalean.

**Edozein premiatarako:**
- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Ekografiak (4D)
- Titietako gaixotasunak
- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Albizu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO



Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88

ANTZUOLA

## Iturbeandia baserria kultura ondasun izendatu du Jaurlaritzak

Lizarraga auzoko Iturbeandia baserria monumentu izendatu du Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak. Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartu dute.

XIV. mendeko baserria da; fatxada nagusiaren beheko solairua harri-hormaz eginda dago eta bi arku ditu. Lehen solairuan, berriz, armarria dauka.

**TOPONIMIA LIBURUA, 10EAN**

Otsailaren 10ean aurkeztuko dute Kristina Pavoren toponimiaren gaineko ikerketaren emaitza den liburua. /A.I.




MIKEL LUPIAÑEZ

ARRASATE

## Zerrajera gunearen etorkizuna aztergai astelehenean

Asteleheneko osoko batzarrean Egitamu Orokorra aldatzeko proposamena eztabaidatuko dute zinegotziek. Egitamu Orokorra aldatu beharko dute, baldin eta Udalak Caixarekin hitzartutakoa garatu nahi badute (Zerrajera gunean etxebizitzak egitea gazteei eta nagusiei alokairuan emateko). Baina udal gobernuak ez du batere erraz izango. Ezker Batua gobernutik kanporatu izanaren ondorioz, gehiengo osoa galdu egin duelako eta oraingo honetan beharrezkoa duelako. Gainera, PSE-EEk abisatu du Zerrajerako proiektuak aurrera egiten ez badu, konfiantzazko mozioa ipiniko diotela Lakuntzari. Alkateak, berriz, adierazi digu negoziatzen ibili arren, epe motzean ez duela espero gehiengo osoa lortzeko akordiorik gainerako alderdiekin. /U.M.

ARETXABALETA

## Kirol etxea berritu eta handitzeko ideien lehiaketa deitu du Udalak

Zahartuta dago Aretxabaletako kirol etxea, eta gero eta erabiltzaile gehiago izanik, handitu beharrean dago. Hori horrela, ideien lehiaketarako dei egin du Udalak. Arkitektoen proiektuak bakarrik jasoko dituzte eta oinarrizko eta exekuzio proiektuak aurkezteko 90 eguneko epea izango dute urtarrilaren 25a ezkero. Epaimahaiak beste 90 egun izango ditu gero, aurkeztutako proiektuak aztertzeko. Irabazleak behin betiko proiektua egitea eta lanen zuzendaritzaren ardura jasoko ditu saritzat. /M.A.

ARAMAIO

## Auzoak indartzea eta bideak konpontzea, helburu nagusi

Oraingo asteko eguaztenean landu zuen udalbatzarrak 2006rako aurrekontua. Zirriborroa aurkeztu zien alkateak, aurreikusitako gastuen eta sarreren artean 48.000 euro pasatxoko desfasea zutelako. Hala, zenbait gastu berregokitu egin beharko dituzte, sarrerak eta gastuak parekatzeko.

Kontuak kontu, alkateak aurreratu zizkigun 2006rako Udalaren erronkak izango zirela auzoak indartzea (Arriola, Salgo eta Errotabarrirako proiektuak dituzte) eta herriko bideak konpontzea. /U.M.

ESKORIATZA

## Irailean zabaldu gura dute haurreskola oktogonoetan

Joan den astean hasi zen Udala Luis Ezeiza eskolaren ondoko oktogonoetan haurreskola egiten. Asmoa da lanak hiru hilabetetan bukatzea, eta 0 eta 2 urte arteko umeek irailean ikasturtea han hastea. Egokitze lanek 295.900 euroko aurrekontua dute, eta Udalak Aralan enpresari esleitu dizkio.

Lanak bukatu bezain laster, partzuergoa arduratuko da egoitza hornitu eta langileak kontratatzen. Maiatzean zabalduko dute matrikulazioa, irailean ikasturtea oktogonetan hasteko. /I.B.

BERGARA

## Zabalotegiko auzotarrak kezkatuta Udalaren egitasmoa dela eta

Zabalotegiko bizilagunak kezkatuta daude arau subsidiarioen aurrerapenean jasotakoarekin. Artzamenditik Koldo Eleizaldera (Mariaren Lagundia eta Zabalotegi zeharkatuz) kale berria egiteko aukera jasotzen da bertan. Informazio falta salatu dute auzotarrek: "Orain arte jakin izan dugun bakarra zera da: errepideak Zabalotegin bi noranzko izango lituzkeela eta, ondorioz, gaur diren aparkaleku guztiak desagertu egingo liratekeela. Artekalea eta Barrenkalea oinezkoendako kale bihurtuko zirenez, Zabalotegi erdiguneko komunikazio ardatz nagusia izango litzateke, baita Elosurako eskualde-errepidearen zati bat ere".

Auzoan ibiltzen den jende kopurua ikusita, arrisku maila asko igoko litzatekeela diote: "Proiektua ez da egokiena, ezta onena ere. Edozein aldaketa egitekotan, bertakoen bizikalitatea hobetzea espero dugu". Udalaren egitasmoaren aurka 600 bat sinadura jaso dituzte dagoeneko.

**UDALAREN ERANTZUNA**

Jose Antonio Etxeberria Hirigintza zinegotziak zera esan digu: "Herritar guztien ekarpenak jasotzeko epea zabalik dago orain, arauen behin-behineko onarpena eman aurretik. Azalpen guztiak emateko gertu gaude udaletxean. Asmoa proiektu hori aurrera eramatea da, baina ez dugu oraindik ezer onartu. Herria nola ordenatu nahi dugun jaso dugu, besterik ez". /E.M.

**Zertzelada**

**Artzamenditik Koldo Eleizaldera (Mariaren Lagundia eta Zabalotegi zeharkatuz) kale berria egiteko aukera jasotzen da arauen aurrerapenean**

OÑATI

## Urte honen bukaerarako, 500 aparkaleku gehiago egongo dira herrian

Olakua auzoko aparkaleku berriek hasita behar zuten, eta Udala prest dago neurriak hartzeko, lanak ahalik eta azkarren hastea gura du-eta. 100 aparkaleku baino gehiago egingo dituzte auzo horretan.

Bestalde, Kalegoieneko eta kiroldegiko aparkalekuak ere amaituta egongo dira urtea bukatu orduko. Beste 400 bat autorendako tokia egongo da bi aparkaleku horietan. Bide batez, kiroldegitik osasun etxera bitarteko errepide zatiak apirilera arte jarraituko du itxita.

Aparkalekuak herri ertzean egin gura ditu Udalak, erdigunean autorik ez pilatzeko. Errekaldean ere egin gura dituzte. /O.E.



O.E.

Kiroldegiko aparkalekua urtea bukatu orduko zabaldu gura dute.

ELGETA

## Aurrekontuen gaineko osoko bilkura atzeratu egin dute

Udal aurrekontuen gaineko batzarra urtarrilaren 31n ziren egitekoak udaletxean. Azken orduko aldaketa batzuk direla eta, atzeratu egingo dute, ordea. EAJ-EAk dio aldaketa egin eta osoko bilkura atzeratu arren, proposamenean apenas izango duela eraginik. Aralarrek, aldiz, esan du, herritarrei EAJ-EAk aurkeztu dien aurrekontu proposamena "ez dela erreala"; hala ere, gaineratu dute prest daudela "proposamen berriari buelta batzuk eman eta adostasunera iristeko". /I.A.

LEINTZ GATZAGA

## Astelehenean hasiko da autobus zerbitzua, hainbat gabeziarekin

Gatzagarrek urteak eman dituzte garraiobide publikoa eskatzen, eta eskaera hori indartu egin da azken hilabeteotan. Azkenean, Diputazioak astelehenean bertan jarriko du abian autobus zerbitzua. Baina zerbitzu horrek hainbat gabezia izango ditu.

Hain zuzen ere, Diputazioak astelehenerako bidali duen ordutegiari erreparatuta, bistan da herritarrek egindako eskaerak ez dituztela aintzat hartu; besteak beste, asteburuetan ez dituztelako autobusak izango. /X.U.



OIHANA ELORTZA

# *Aizpea Otxandiano*

INFO7 IRRATIAREN ALDEKO HERRITARRA

## “Euskal Herri osorako emitituko duen irrati nazionala izan gura du Info7 irratiak”

### EUSKAL HERRIRAKO INFORMAZIOA

**“Hiru ardatz izango ditu irratiak: albisteak, kolaboratzaileak eta musika; Euskal Herria nazio gisa hartzen duen informazioa ematea da asmoa, hiru hizkuntzatan”**

### BAZKIDE ETA INFORMAZIO KANPAINA

**“Asteburu honetan bazkide kanpaina abiaraziko dugu irratiaren eguneroko faktura ordaintzeko dirua lortzeko, eta herri guztietan jarriko ditugu informazio mahaiak”**

Gaur, egubakoitza, iluntzean hasiko da emititzen Info7 irratia. Urruñan du egoitza irrati horrek eta Euskal Herri osoko ikuspegitik emitituko du programazioa. Asteburu honetan, bazkide eta harpidetza kanpaina abiaraziko dute.

OIHANA ELORTZA

**Nolako irratia da Info7?**

Info7 irratiak herritarra gura du izan, aurrerakoia eta profesionala, besteak beste. Bestalde, izenak ere laburbiltzen du irratian entzungo duguna. Albisteei, informazioari, eman gura diote garrantzia, eta horixe izango da Info7ren ardatza. Zenbakiak zazpi lurraldeak ordezkatzen ditu.

**Non egin da proiektua? Nola?**

Azti-begia elkarteak egindako proiektua da Info7 irratia. Azti-begia elkartea elkarte herrikoi bat da, hainbat herritarrek osatzen dutena. Talde horrek ikusi zuen gabezia bat dagoela irratian, zerbait falta zaiola gaur egungo irratiari.

Elkarte horren iritziz, Euskal Herriaren ikuspegi nazionala falta da egungo irratietan; uste du naziotasuna kontuan hartzen duten informazioa falta dela. Behar hori ikusten zuen elkarte honek, eta lanean hasi zen hori bermatuko duen irrati bat egiteko.

**Non ikusten zuten gabezia hori?**

Euskal Herriko zazpi lurraldeak batera hartzen duen zerbait, kontzeptu bat, falta zaiela irratiei uste dute. Informazioa Euskal Herria osotasunean hartuta ez dela ematen ikusten zuten, horixe falta zela.

**Noiz hasi zen Azti-begia elkartea Info7 irratia sortzen?**

Duela urtebete hasi ziren proiektuarekin. Denbora horretan ideia bera lantzen ibili dira, proiektu bihurtzen. Gaur, egubakoitza, hasiko da emititzen.

**Ze zailtasun izan dituzte irratiaren proiektua martxan jartzeko?**

Batez ere, FMn emititzeko baimenak lortzea. Horrez gain, Euskal Herriaren naziotasuna onartzea ere oztopoa izan daitekeela uste dut. Hala ere, behin martxan jarri eta gero, oztopoak gutxitzen joango direla pentsatu gura dut.

**Internet bidez hasiko da emititzen. Zergatik?**

Berez, FMn emititzea du helburu Info7 irratiak. Horretarako, ordea, baimenak behar dira. Oraindik ez dituzte beharrezko paper edo baimen guztiak lortu eta, bitartean, Internet bidez emititzen hastea erabaki dute. Gaurko teknologiek ematen dute aukera eta, egoera horren aurrean, aukera horiek aprobetxatuko dituzte.

**Ze helbidetan entzungo dugu?**

Oso helbide erraza: *www.info7.com.*

**Noiz hasiko da FMn emititzen?**

Bi hilabete barru hasiko direla kalkulatu dute. Bitartean, ordea, satelite sistemaren bidez ere emititu gura dute.

**Nork eta noiz emango dizkie FMn emititzeko baimena?**

Ba, egia esan, ez dakit. Baimenak lortze hori ez dago euren eskuetan bakarrik, baina ez dakit ze puntutaraino dauden aurreratuta edo geldituta baimena lortzeko gestioak. Eurek, hori bai, kalkulatu dute bi hilabete barru lortuko dutela FMn emititzeko baimena. Beraz, gauzak uste bezala irtenez gero, martxoa edo apirilean hasiko dira FMn emititzen.

**Ze programazio du Info7 irratiak?**

Gaurko emisioa eta asteburuan entzungo duguna aurkezpen emisioa izango da, berezia. Datorren astetik aurrera hasiko da prestatu duen programa emititzen. Hala ere, denborarekin osatuz joango den programazioa da.

Berez, hiru ardatz nagusi ditu Info7 irratiko programazioak: albistegiak, kolaboratzaileak eta musika. Informazioa izango da ardatz nagusia. Goizetan, adibidez, magazin bat egingo dute, Martin Garitano egongo da bertan, baina hor ere informazioak izango du garrantzia. Horrez gain, kolaboratzaileek egingo duten lana eta musika ere garrantzitsuak izango dira. Azken finean, 24 orduz emitituko du irrati berri honek ere, eta programazioa horretarako prestatu du.

**Urruñatik emitituko du Info7k, ezta?**

Bai, hantxe du egoitza, eta Euskal Herri osorako emitituko dute handik. Bi enpresek, Bordagain eta EKHE enpresek, hain zuzen ere, inbertsio handia egin dute Urruñan hedabideendako hainbat baliabide jarriz: errotatiba, erredakzioa eta estudioak daude, adibidez. Elkarteak irratiko estudioak alokatu ditu Info7 irratiak emititzeko.

**Nola dago antolatuta lantaldea?**

Langileak denetarikoak dira. Horietako batzuk aurretik ere irratian edo beste komunikabide baten ibilitakoak dira. Beste batzuek, ordea, lehendabiziko aldiz egingo dute irratiko lana. Lantalde finkoa Urruñako egoitzan egongo da. Horrez gain, hainbat kolaboratzaile izango ditu irratiak. Dagoeneko 40 kolaboratzaile baino gehiago ditu. Horien artean daude eragile sozial lanetan dabilen jendea, edo beste komunikabide batzuetako kazetariak, esaterako. Dugun beste asmo bat da gure programak beste irrati batzuekin trukatzea. Gainera, lanean hasi ahala handitzen joango da taldea.

**Euskal Herri osorako izanik, zein hizkuntzatan emitituko du?**

Hiru hizkuntzatan. Euskarak garrantzia handiagoa izango du, gehiago entzungo da euskaraz, baina frantsesez eta espainolez ere emango ditu albisteak. Ez dakit proportzioa zenbatekoa izango den zehazki, baina erdia baino gehiago euskaraz egingo da. Adibidez, izan liteke ordu betean lau albistegi ematea: puntan eta erdietan euskaraz, laurdenetan espainolez eta laurden gutxitan frantsesez.

**Bazkide kanpaina abiaraziko duzue asteburu honetan bertan. Nola egingo duzue? Non?**

Proiektu honekin aurrera jarraitzeko, behar-beharrezkoa da dirua izatea. Eta dirua lortzeko, bazkide kanpaina egitea pentsatu dugu.

Gaur, egubakoitza, hasiko gara kanpaina horrekin. Harpidetza orriak atera ditugu interesa duen edonork hartzeko. Orri horiek eskuratzeko moduan egongo dira, adibidez, asteburu honetan jarriko ditugun informazio mahaietan. Arrasaten, adibidez, Portaloian jarriko dugu informazio mahaia: gaur 18:00etatik 21:00etara eta bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 21:00etara. Debagoieneko beste herrietan ere egongo dira informazioa ematen eta harpidetza orriak banatzen. Herriko plazetan egongo dira eta ordutegi berdina edo oso antzerakoa izango dute.

**Zenbat lagun ibiliko zarete harpidetza kanpaina egiten Debagoienean?**

Arrasaten, adibidez, bizpahiru lagun egongo gara txanda bakoitzean, eta gainerako herrietan ere antzera egongo direla pentsatzen dut.

**Zertarako erabiliko da lortutako dirua?**

Proiektua berria da eta, batetik, herritarren babesa jaso gura dugu. Dirua, bestalde, proiektuan bertan inbertituko da. Esan dezagun dirua eguneroko fakturak, ordain agiriak ordaintzeko, izango dela: lokalaren alokairua, soldatak, materiala... Beste edozein proiektu hasi berrik bezala, Info7 irratiak ere diru premia du.

**Zenbat behar duzuen kalkulatu duzue, gutxi gorabehera?**

Bai. Kalkulatu dugu hilean 7 euroko harpidetza ordaintzeko prest dauden 4.500 lagun behar direla. Diru horrekin, lehen aipatutako gastuak ordaintzeko adina diru lortuko dela kalkulatu dute.

**Erakundeen dirurik izango duzue? Eskatu diezue? Nori?**

Erakundeen dirua ere ongi etorria izango da, noski. Pentsatzen dut Euskal Herriko osoko erakundeengana ere joango direla diru laguntzak eskatzera.

**Bazuen jendeak irrati honen berri? Ezagutzen zuen?**

Askok ez dut uste aurretik ezer entzunda zutenik, gehienek oraintxe izango zuten proiektuaren berri. Hala ere, bai bazkide kanpainak, bai informazio kanpainak, proiektu hau ezagutarazten eta zabaltzen lagunduko duela uste dut.

# Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa eta helbidea agertu beharko dira bidaltzen den gutunean. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 25 05 01
Faxa: 943 76 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

## 'Deituraz Abalde…'

Deituraz Abalde
baina ez dabil debalde
goizez harriaz baliatzearen alde
arratsaldez harginari alde!

Jakin badaki
inork baino hobeto jakin
hemen harriaz behar dugula bizi,
etxeak, ospitalak… eraiki,
errepideetarako orea egin.

Norbera ere hortatik bizi
baina ez adierazi
hargina, berriz, madarikatu,
itoarazi.

Ez du, ez
Goienkarian ateratzerik merezi.

MIREN ARGINE AIZPEA
Arrasate

## OGA suntsitu nahi dute

Oñatiko udaletxekoek eta Ertzaintzak OGA hasieratik gaizki ikusi dute. Kasablankako gaztetxea bota zigutenetik ikusten ez den joko zikina egin dute gure kontra. Asanbladako kideak eliminatu nahi dituzte beldurraren eta zigorren bidez.

Hona hemen, guztiok jakin dezazuen, jasan ditugun erasoen zerrenda:

–Prentsaurrekoa eman zuen Asanbladako kideari ertzainak etxera deika aritu zitzaizkion, mehatxuak botaz eta tontakeriak esanez.

–Manifestazioan izena eman zuen Asanbladako kideari ere etxera deika aritu zitzaizkion ertzainak. Deklaratzera joan behar izan zuen.

–Kasablankako Gaztetxea bota zuten egunean Soraluzen Oñatiko Gaztetxearen aldeko kartel bat itsasten ari zen gazte bat atxilotu zuten. Gau guztia pasa behar izan zuen polizia-etxean.

–Eraisketaren egunean Asanbladako hiru kide identifikatu zituzten eta gaur egun juiziotan ari dira oraindik.

–Gaztetxea bota zuten egunean manifestazioaren berri ematen zuen kartela jarri zuen asanbladako kide bat identifikatu egin zuten ertzainek. Orain dela gutxi ertzainak agertu zaizkio etxean esanaz deklaratzera joan behar duela. Orain, behin deklaratu ostean, epaiaren zain dago.

–Gaztetxe berrian asanbladako kide bat identifikatu dute eta gaztetxe barrura sartuz alukeriak esaten aritu zaizkio ertzainak.

–Bestalde, Gaztetxe berriko jabeak Udalaren eta Ertzaintzaren partetik presioak jasan ditu guri salaketa jartzeraino.

Musean txarra denak mahaipetik atera behar kartak. Indar polizialik gabe ezin gaituzue geldiarazi.

Asanbladak aurrera jarraitzen du: domekero 17:30ean.

Errepresioaren aurrean herri presioa!

Herri bat, gaztetxe bat!

OGA
Oñati

## Tokiko telebistak eta euskara: eskubide kontua

Teknologia berrien eskutik datorkigu tokiko telebisten araua. Garai digitalean sartzen ari gara eta Estatuan telebista digitala legez arautu dute. Eusko Jaurlaritzak, lehenago Nafarroako Gobernuak edo beste batzuek egin duten modura, dekretu bidez zehaztuko ditu EAEn banatuko diren lizentziak erabakitzeko irizpideak. Lehen zirriborroa jadanik ezaguna dugu.

Dekretu zirriborroan tokiko telebistetan euskararen erabilera arautzeko irizpide nagusia ondorengoa da: Eustaten ikerketak hartuta, eremu bakoitzeko biztanle euskaldunen portzentajearen araberako gutxieneko kuotak ezarriko zaizkie eremuko tokiko telebistei. Udalek zuzenean kudeatutako telebistei %50eko gutxieneko kuota ezarriko zaie, eremuko euskaldunen portzentajea txikiagoa denean (bestelako eragileek kudeatutakoentzat ez dago gutxienekorik). Hala ere, hirigune handienetan udalek hartuko dituzten erabakiak ikusteko daude. Lehenengo sortu zaigun galdera hau da: zergatik ez dira Eustateko datuetan ia-euskaldun moduan sailkatzen diren biztanleak gutxieneko kuota ezartzeko kontuan hartzen? Eta bigarren galdera bat ere gehituko genuke: zergatik ez zaigu euskaldunoi euskara hutsezko kanalik legez bermatzen?

Egin ditugun eskariak (euskara hutsezko telebistentzat erreserbak eta kuotak ezartzeko ia-euskaldunak kontuan hartzea) ez dira kapritxoak, ez dira kontu hutsalak edo garrantzirik gabekoak. Ia-euskaldunen multzoan sartzen diren biztanleak euskarazko telebistaren hartzaile potentzialak dira, euskarazko komunikabideak hartzera erakarri nahi den multzoa da. Aintzat hartzeko zenbait datu:

–Eustateko 2001eko datuen arabera, EAEko hiru hiriburuak kokatuta dauden eskualdeetan 294.294 euskaldun eta 356.504 ia-euskaldun bizi ziren urte horretan (bi urtetik gorako biztanleak). Hiru eskualde horietan EAEko biztanleen bi herenak (%67,56) kontzentratzen dira.

–Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordeari entzundako beste datu bat: elebidunen bi herenak (%66,3) hirietan bizi dira, EAEko errepide sare nagusietan lerratutako 10.000 biztanletik gorako udalerrietan.

Beraz, dekretu zirriborro honen arazoa populazio gune handienetan agerian gelditzen da. Hirietan dauden euskaldunen kopuruak handiak izanik, euskaldunen portzentajea txikia da (ia-euskaldunak aintzat hartuz egoera dezente aldatuko litzateke). Euskaldun gehien bizi den eremuetan egongo dira kuotarik txikienak (Bilbon, %16; Barakaldon, %12; Getxon, %21; Gasteizen, %15; eta Donostian, %39) eta eskaintza gehienek minimoak bakarrik beteko dituztela aurreikusi daiteke. Euskararen erabileraren sustapenaren ikuspegitik, herren dagoen planteamendua da beraz. Bilbon, adibidez, euskaldun eta ia-euskaldunen kopurua gehituta, ia 155.000 lagun zeuden 2001. urtean. EAEko eskualde bakarrak gainditzen du euskaldunen kopuru hori, baina hala ere Bilboko 155.000 euskaldunek ez dute beste eskualde batzuetako euskaldunek edukiko dituzten aukerak izango euskarazko tokiko telebistak izateko. Programazioaren %16 soilik izan behar da euskarazkoa, eta oraindik ez dakigu gainera leku duina izango duen euskarazko programazio horrek. Desproportzioak nahiko agerikoa dirudi.

Irtenbidea erraza da nire uste apalean: ia-euskaldunak aintzat hartu eta euskara hutsezko telebistentzako erreserbak egin, euskaldun guztiok aukera berdinak izan ditzagun. Eskubide kontua da.

IKER MARTINEZ DE LAGOS
Topagunea Euskara Elkarteen Federazioko idazkaria

# Hemeroteka

## 18/98 eta askoz gehiago

Bi hilabete bete dira azaroaren 21ean 18/98 makrosumario korapilatsuaren epaiketari hasiera eman zitzaionetik. *Egin* egunkaria eta Egin Irratiaren itxierekin hasi eta etengabe haziz doan elurrezko pilota erraldoi baten moduan, bere baitan, gizarte eragileak, komunikabideak, euskararekin lan egiten duten elkarteak, eragile politikoak, enpresak… irentsiz joan da sumario zurrunbilotsu bezain ilun hau.

Lehenengo itxiera haietatik zazpi urte baino gehiago pasa direnean ekin zaio interes politikoak gainezka egiten dion epaiketari. Hain egin zaie handia pilota, ezen epaia burutu ahal izateko Entzutegi Nazionalean sartu ezinka, Casa de Campo moldatu behar izan duten.

Prozesu osoaren garapena ikusirik, berme gutxiko epaiketa izango zela espero, espero zitekeen. Baina berriz ere Espainiar (in)justiziak aurreikuspen guztiak gainditu ditu.

Ez da inputatuen adierazpen eskubidea errespetatu, iritziak emateko aukera ukatu egin zaie. Euskaraz adierazteko trabak izan dituzte. Hamaika izan dira prozedura judizialetan agerian geratu diren irregulartasunak. Defentsak etengabeko oztopoak aurkitu ditu bere jardunean: sumariotik agiriak eskatzerakoan, hauek ez dira agertzen, oinarrizko dokumentuak lortzeko zaitasunak dituzte eta epaileek inork eskatu gabeko testuak irakurtzeko agindu dute behin baino gehiagotan. Zer-nolako justizia espero liteke epaile taldea akusazioa bailitzan jokatzen ari denean?

Oraindik epairik ez dagoen arren, inputatuak aspaldi hasi ziren ondorio larriak nozitzen: inkomunikazioa, tortura, kartzela, enpresen itxierak, zigor ekonomikoak, istripuak… Larrutik ordaintzen ari dira euskaldun eta abertzale izatea.

Datorren asteartean berrekingo zaio epaiketari Ekin antolakundearekin. Seguruenik aste barruan deklaratuko du Natale Landa arrasatearrak, eta hau salatzeko kontzentrazioa egingo da herriko plazan.

Inoiz baino garrantzitsuagoa da epaiketa politiko hau salatzeko antolatuko diren ekimen ezberdinetan parte hartu eta euskal herritarron aurka zabaldu duten epaiketa ustel hau errefusatzea.

Elur pilotak jira eta buelta darrai. Ezin gara geldirik gainetik nola pasatzen zaigun ikusten gelditu.

ASKATASUNA
Arrasate

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ERREDAKTORE BURUA
Leire Kortabarria
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano eta Itxaso Berezibar
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Debagoiena aldatu egin da, gu ere bai




## Otsailaren 3an, Goienkaria berritua.

Informazio hobea • Diseinu berria • Orri gehiago • Kolore gehiago

**Goienkaria**

**Haritz Olagoi** / Kirol psikologoa

# “Gurasoek erabil dezatela kirola gazteekin komunikatzeko”

XABIER URTZELAI

**Leintz Eskola Kirola elkarteak martitzenean egin zuen batzar orokorra. Eta, Haritz Olagoi kirol psikologoa gonbidatu zuten, *Ume, zergatik ez duzu kirola egin gura?* izenburupean berbaldia egitera. Martitzenean landutako hainbat gairen gainean egin dugu berba.**

**Umeek ez ei dute kirola egin gura.**

Kontua da eskola kirolean derrigortuta daudela kirola egitera. Baina, arrazoi batengatik edo bestearengatik 12-13 urterekin askok eta askok alde batera uzten dute kirola.

**Zergatik?**

Ez dago arrazoi bakarra, hainbat motibo daude. Badakigu eskola kiroletik kirol taldeetara egiten den jauzia dela arazoetako bat. Kirol elkarteetan neska-mutikoei kirolerako duten gaitasuna neurtzen zaie. Eta, gaitasun txikia dutenak ez dituztenez aukeratzen, gazte horiek alde batera uzten dute kirola. Horrekin batera, egia da egungo gizartea gero eta sedentarioagoa dela. Gazteek gurago dute denbora librea ordenagailuaren edo telebistaren aurrean pasa, eta horrek ere ez du laguntzen.

**Horren garrantzitsua da adin horietan kirola egitea?**

Nik uste dut baietz. Ez da kirola egite hutsagatik bakarrik; kirola osasuna da, osasuna dakar, eta garrantzitsua da adin horietako gazteengan kirol-kultura sustatzea. Estatistikek diotenez, egungo gazteak gero eta lodiagoak dira, eta epe luzera hori arriskutsua izan daiteke. Eta ez da osasun kontua bakarrik; kirolak lagunduko digu taldean lan egiten ikasten, gainontzekoekin komunikatzen, sozializatzen, besteei ulertzen. Elkarbizitzarako hainbat balore ikas daitezke kirolaren bitartez.

**Gurasoek badute horretan zeresanik?**

Bai. Eurak arduratu behar dira neska-mutikoek kirola egin dezaten. Gurasoek seme-alabei ulertarazi behar diete ondo pasatzeko egiten dutela kirola. Alde horretatik, lehiaketak baztertu barik, kirol emaitzei garrantzia kendu behar zaie; dena ez da irabaztea ala galtzea. Kirola hori baino gehiago da, gurasoek gazteekin komunikatzeko duten tresna da, harremanak sendotzeko balio duena. Alde horretatik, gurasoak animatu gura ditut kirol begiraleekin ere harreman handiagoa izateko.

**Zein iritzi duzu Leintz Eskola Kirolak egiten duen lanaren gainean?**

Poz handia hartu nuen martitzenean, orain arte egin duten eta egiten duten lana ikusita. Eskola kirolak izan behar duen kalitateaz arduratzen dira, eta martitzenean aurkeztu zituzten proiektuak ikusita, hobera egingo dute. Alde horretatik gurasoak animatu gura ditut seme-alabek eskola kirolean esku har dezaten.

**“Lehiaketak ez dira baztertu behar, baina emaitzei garrantzia kendu behar zaie”**

**“Kirola egiteak osasuna dakar, eta kirol-kultura sustatzea komeni da”**



GOIATZ ARANA

Haritz Olagoi pasaiatarra, martitzenean, Monterron parkeko atean.

# Kirola eginez, gorputza zaindu

## Urteek ematen duten ajea arintzeko beharrezkoa eta lagungarria da kirola

Urteek ez dute barkatzen eta adinaren pisua urtetik urtera nabaritzen da. Ez pisua bakarrik, baita urteek ematen dituzten gainerako ajeak ere.

Bada, aje horiek arintzeko lagungarria ez ezik, beharrezkoa ere bada kirola. Gure gorputzak hainbat prozesu biologiko jasaten ditu, eta sortzen diren aldaketa guztien artean, gure gorputzaren konposizio mailan geratzen direnak nabarmendu behar dira.

### MUSKULUA BEHERA ETA KOIPEA GORA

Gure gorputza urez, giharrez eta koipez osatuta dago. Eta osagai horien proportzioa edo zenbatekoa denboraren eraginez aldatuz joango da. Adina aurrera doan heinean, gizakion gihar masa, muskulua, kopurua gutxitu egiten da eta koipe kopurua handitu. Koipe hori sakabanatzen hasiko da eta banaketa horrek ondorio metaboliko batzuk izan ditzake, hainbat gaixotasun sortzeraino: diabetesa, hipertentsio arteriala edo odolean kolesterol igoera, adibidez. Hezur masa gutxituz joango da eta horrek osteoporosi gradu desberdinak sortu ahal ditu, eta hezurrak apurtzeko arriskua handitu egiten da.



GOIENKARIA

Arrasateko Uarkape pilotalekuan da jaia, zapatuan, 10:00etan.

**Koipea, energia eta ura zaindu behar dira**

**Kirol eskaintza zabala dago gurean**

### ENERGIAREN JAITSIERA

Gorputzaren ur guztiaren jaitsiera ere nabaria izaten da. 30 urtetik aurrera, esna eta atseden egoeran gastatzen dugun energia 5 kaloria gutxitzen da egun eta urte bakoitzeko.

Beraz, energiaren gastua txikitu egiten bada eta gorputzean sartzen dugun kopurua bera bada, kiloak irabaziko ditugu denbora joan ahala. Eta hori saihesteko irtenbiderik onena gorputz jarduera handitzea da, kirola egitea eta gorputza astintzea, gastatzen den energia kopurua egokitzeko.

### MASTERREN JAIA

Horretarako aukera ematen dute, adibidez, Debagoieneko mankomunitateko kirol zerbitzuek eskaintzen duten kirol jarduerek eta jaiek.

Hainbat kirol txapelketa antolatzen ditu Mankomunitateko kirol sailak. Horietako batzuk dira tenis, squash eta frontenis txapelketak. Bihar, zapatua, kirol horien masterra jokatu dutenen arteko jaia egingo dute. Arrasateko Uarkape pilotalekuan da jaia, 10:00etan. Gero, 12:00etan, sari banaketa egingo dute.

**KIROL ZERBITZUEN BERRIAK JASOTZEKO:**

| | |
|---|---|
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Bergara | 943 77 91 67 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
kirol zerbitzua

# Mugarri Alkesaren hurrengo pausoa, Urdanetaren kontura

## Zurututzaren mutilek bihar jokatuko dute, 18:00etan, Iturripen

XABIER URTZELAI

**Arrasateko saskibaloi taldeak aurten ez du mugarik, ezta igoera fasean ere. Joan den astean erakutsi zuten hori, lider zegoen Suminan taldearen kantxan irabazita. Bihar, zapatua, sailkapenean bi postu atzerago baino ez dagoen Urdaneta izango da Iturripen.**

Oraindik lan handia dago egiteko, igoera fasean 13 jardunaldi geratzen dira-eta jokatzeko. Baina Mugarri Alkesa taldea dagoeneko bosgarren postuan dago, lehenengo bi postuetan dauden taldeak baino bi garaipen gutxiagorekin.

Alde horretatik, goiko faserako sailkatzea gaitza izango den arren, taldekideak konbentzituta daude denboraldiari gatza eta piperra bota gura diotela; ez dute igotzeko ametsa beste barik baztertu gura. Liderraren kantxan irabazteak (87-106) indarra eman du, amets egiten jarraitzeko eta igoera fasean ilusioz jarraitzeko ez bada ere.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Igoera fasean garesti ordaintzen da bost minutuan kontzentrazioa galtzea

Hala, ibarreko jokalariz osatutako Mugarri Alkesak garaipena baino ez du buruan biharko: "Talde ezaguna da, joan den urtetik hona asko indartu dena. Bi jokalari on dituzte, Llamosas eta Casado, eta bi jokalari horiek erraz egiten dituzte 50 puntu. Beste gauza batzuen artean, euren gainean egon beharko dugu", esan digu Jagoba Gamarrak.

Ikusleak erakartzeko Arrasateko taldeak bihar ere txokolate beroa banatuko du.

## Kirolabur

### FUTBOLA/PREFERENTEA

Mondrak eta Aretxabaletak jokatuko dute oraingo asteburuan etxean. Eta gainera, bi talde horiek domekan jokatuko dute: Aretxabaletak Idiazabalen kontra, Ibarran (16:30), eta Ordiziaren kontra Mondrak, Atxabalpen (16:00). Aloña Mendiko mutilek, berriz, Errenteriaraino joan beharko dute bihar (17:00).

### MENDIKO ESKIA/IRTEERA

Gipuzkoako Mendi Federazioak mendiko eskiekin egiteko zeharkaldia antolatu du martxoaren 11ko eta 12ko asteburURAko, Portalet eta Somport inguruan (Huesca). Bi talde egingo dituzte, maila ona dutenak batetik, eta horren ondo moldatzen ez direnak, bestetik. Izena eman gura duenak deitu dezala 943 461 440 telefono zenbakira.

### FUTBOLA/LEMOAK FITXATU DU KOLDO EROSTARBE

Eibar futbol taldean umetatik jardun ostean, Koldo Erostarbe jokalari elgetarra Lemoak fitxatu berri du. Eibarko taldeak utzita jokatuko du han urtea amaitu bitartean. Aste honetan bertan ekin dio elgetarrak talde berriarekin entrenatzeari. Olabek erabaki du elgetarrak, momentuz, Eibar taldean ez duela lekurik izango.



GOIENKARIA

Lorcaren kontra egin zuen debuta Koldo Erostarbek, baina aukera gutxi izan du.





## Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA / 943 79 24 58
www.baster-alde.com

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Jaunartze eta bataioak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

**Astelehenetan itxita**

# JATETXE GIDA

## On egin!





## Dragon Oriental

Araba etorbidea 3 (Super BM ondoan) / ARRASATE
943 79 85 33

**Txinatar jatetxea**

**Eskaintza**
- 140 lagunendako jangela
- Aparkaleku ezin hobea
- Janaria etxera eramaten dizugu

**Eguneko menua eta karta**



## Eguzkitza erretegia

Arane Erreka 30 / BERGARA
943 76 97 01

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak

**Berezitasunak**
- Behi txuleta
- Bakailaua

**Martitzenetan itxita**



## Gure Ametsa jatetxea

LEINTZ GATZAGA
943 71 49 52

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Jaunartzeak eta bataioak
- Hiru jangela
- Aparkaleku handia
- Umeendako jolaslekua

**Astelehenetan itxita**



## Taberna-Berri jatetxea

Durana 24-26 / ARETXABALETA
943 79 20 67 / 943 79 49 41

**Eskaintza**
- Menua
- Enpresa bazkariak
- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Bi jantoki: 80 eta 150 lagunendako

**Berezitasunak**
- Bakailao entsalada epela
- Oreina Oporto saltsan
- Arrain parrilada



## Tartufo jatetxea

San Juan auzoa / BERGARA
943 76 35 51

**Eskaintza**
- Familiako bazkariak
- Kintadak dantzaldiarekin
- Eguneko menua eta karta berezia
- Aparkaleku ezin hobea
- Bi jangela: 100 eta 55 pertsonendako

**Berezitasunak**
- Arrainetan aukera zabala
- Oreina eta txuleta txingarretan erreta

**Egunero zabalik 5:30etatik aurrera**



## Torrekua jatetxea

Ibargarai 37 / BERGARA
943 76 50 99

**Eskaintza**
- Eguneroko menua
- Karta
- Kintadak
- Bataio eta jaunartzeak

**Berezitasunak**
- Batik bat arraina
- Itsaskia
- Txuletak




## Unzueta jatetxea

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

**Berezitasunak**
- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

**Egunero zabalik**

# GOIENKARIA berritua!




**Datorren egubakoitzetik aurrera, zure eskura!**

INFORMAZIO HOBEA > DISEINU BERRIA > ORRI GEHIAGO > KOLORETSUAGOA



- Merkatuko lehen markak
- Mota askotako estiloak
- Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.
**Labegaraieta Industrialdea BERGARA.**
Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.
www.iparproject.com





# Debagoiena aldatu egin da; gu ere bai!

**EDIZIO BAKARRA** Eskualdeko bederatzi herrietan GOIENKARIA bera banatuko da; guztiok izango dugu herri guztien berri

**INFORMAZIO GEHIAGO** 56 orrialde banatuko dira eta horietatik 32, koloretan. Herrien atala izango da handiena

**DISEINU BERRIA** Goitik behera aldatuta, edukiz eta itxuraz berritua etorriko da GOIENKARIA, diseinu dotore eta erakargarriz

**PARTE-HARTZEA** Sail berriak sortuko dira, GOIENKARIAren eta irakurleen arteko komunikazioa bultzatze eta indartze aldera

GOIENKARIA > BERGARA

Berritu egin dugu GOIENKARIA. Itxuraz eta edukiz. Diseinua goitik behera aldatu dugu eta, ondorioz, traje berriarekin, dotore eta koloretsu agertuko zaigu.

Baina aldaketa ez da azalean geratu. Eduki berriekin etorriko da, mamitsu: informazio hobearekin, debagoiendarrek orain eta hemen eskatzen dutenari erantzuteko. Halaxe etorriko da eta datorren egubakoitzean, otsailaren 3an, jasoko duzue.

**ORRIALDE GEHIAGO**

Orain arte baino orrialde gehiago izango ditu: 56. Horietatik 32, koloretan. Egun, 48 orrikoa banatzen da Leintz aldean eta 40 orrikoa Bergaran, Oñatin, Antzuolan eta Elgetan. Hala, orrialde gehiago izango dituenez, informazio gehiago eta hobea izango du.

**ESKUALDEAREN ALDE APUSTU**

Azken urteotan indarra hartzen doa eskualdea. Gero eta zerbitzu komun gehiago dauzkagu debagoiendarrok, gero eta interes handiagoa daukagu ondoko herrien gainean, mugikortasun handiagoa dago herritik herrira. Horrek guztiak eta produkzio kostuak arrazionalizatzeak ekarri du GOIENKARIA berria edizio bakarrekoa izatea.

Izan ere, eskualdeko herri guztietan GOIENKARIA bera banatuko dugu, ez orain arte bezala. Eta guztiok izango dugu herri guztien berri.

**HERRIEN IZENAK**

Ondorioz, herriko informazioa herriaren izenaren azpian joango da, hau da, herri aldizkariaren izenaren ordez herriarena erabiliko dugu, hala nola: *Arrasate Press*-en ordez, *Arrasate*; *Berrigara*-ren ordez, *Bergara; Txirritola*-ren ordez *Aramaio*...

Herrietako informazioa atal handi batean jasoko dugu, GOIENKARIA berrian orrialde gehien izango duena. Hortxe agertuko dira herri guztiak, handitik txikira. Salbuespena izango da Oñati. Hark ez du orri propiorik izango, Oñatiko Udalak hala nahi izan duelako.

**DENETARIKO INFORMAZIOA**

Osterantzean, denetariko berriak jasoko ditu GOIENKARIAk: eskualdekoak, ekonomiakoak, politikakoak, hezkuntzakoak, gizarte arlokoak, kulturakoak, kirolekoak... Iritziak ere tarte zabala izango du eta baita zerbitzu informazioak eta entretenimenduzkoak. Jakina, irakurlerik gabe GOIENKARIArik ez, eta haien parte-hartzea bultzatzeko hainbat sail jasoko ditu, komunikazioa azkartze aldera.

EDUKIA ETA ITXURA

Eneko Azkarate eta Goio Arana > Berritze taldekoak

## "GOIENKARIA izango da argia, sinplea, koloretsua, dotorea eta irakurterraza"

GOIENKARIA > BERGARA

**Goio Arana Goienako diseinu arloko zuzendariak eta Eneko Azkarate prentsako zuzendariak eman digute GOEINKARIA berritzeko prozesuaren gaineko azalpenak.**

**Zelakoa izango da aldizkari berria?**

Diseinuaren aldetik, argia, sinplea, irakurtzeko samurra eta dotorea. Itxurari dagokionez, bateratasuna eman nahi izan diogu, orain arte ez zeukana; izan ere, GOIENKARIAk zeuzkan gorputz komun eta nagusia eta gero herrietako edizioak. Orain, bateratu egin dugu produktua bai edukiz eta baita diseinuz ere. Eta kolorea gehiago erabiliko dugu.

**Tipografiari eta argazkien tratamenduari dagokienez berezitasunik izango du?**

Tipografia berria erabiliko dugu. Erosi ditugu bi familia ezberdin, baina era berean, osagarriak: batetik, Amplitude izenekoa eta bestetik, Walburn. Lehendik erabiltzen genituenekin eta batez ere testu nagusirako erabiliko dugun Nimrod-ekin oso ondo egokitzen dira. Bestalde, argazki gutxiago baina handiagoak erabili nahi ditugu.

**Kazetaritza ikuspuntutik aldaketarik izango da?**

Eskualdea eta herriak izango dira gure informazio iturri eta subjektu nagusiak, eta, jakina, pertsonak ere bai, protagonista nagusiak. Edozelan ere, nahi dugu aldatu apur bat eredua eta eguneroko ekitaldiei gutxiago erreparatuz, aukeraketa egin nahi dugu, gaiak sakonago jorratuz, ikuspuntu ezberdinak eskainiz eta, azken finean, irakurleendako interesekoak diren gaiei helduz.



Eneko Azkarate eta Goio Arana, berritze lanetan buru-belarri. GOIENKARIA

Hiltegia Ingurumena Euskara Lurralden Gizarte Zerbitzuak Turismoa antolaketa Kultura Kirola Aisia
Ongi etorri, GOIENKARIA berria!
DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Arrasate Pasealekua, 5 - ARRASATE - MONDRAGON
Tel.: 943 79 33 99 Faxa.: 943 77 08 54
debagoiena@debagoiena.net - www.debagoiena.com




## Debagoiena eta debagoiendarrak, sakon

GOIENKARIA berriak izango ditu hiru zati nagusi eta hiru azal. Lehenengoa izango da azal nagusia, hasierako orria. Lehen begi-kolpean asteko gai inportanteenak zein-tzuk diren jabetzeko aukera eskainiko zaio irakurleari eta barruko atal nagusiei egingo zaie erreferentzia.

Bestalde, barruko orrietan aurkituko ditugu artikulu mamitsuenak: asteko gaia, elkarrizketa nagusia, iritzi orriak… eta baita Debagoieneko berri nagusiak ere, izan politikakoak, ekonomiakoak, gizarte arlokoak, hezkuntzarekin edo osasunare-kin lotutakoak. Irakurleen parte-hartzea bultzatzeko hainbat atal ere izango dira.













## Herriz herriko informazio osoa

*Herriak* izeneko saila izango da GOIENKA-RIA berrituaren atal zabalena, orrialde kopuruari dagokionez. 25 orrialde izango ditu, publizitatea barne. Bere azal propioa izango du eta astero herri bateko albiste bat ekarriko dugu azalera. Sumario txiki bat ere edukiko du goiko aldean. Ondoren, herri guztiendako komunak diren orrialde bi izango ditu, oharrak, zerbitzu informa-zioa eta abar jasoko dituena.

Osterantzean, ibarreko herri guztiak agertuko dira, handitik txikira; hortaz, denek izango dute, gutxienez, orrialde bat, Oñatik izan ezik, hango Udalak ez duelako nahi Oñatiko orrialde propioa finantzatu.














## Kultura eta aisialdiaren gainean, behar duzuna

*Goienka2a* edo *G2a* izango da GOIENKA-RIAren azken zati nagusia eta azal propioa izango duena. Kultura, komunikazioa, aisialdia, entretenimendua… jasoko ditu atal horrek. Gainera, hainbat gai sakon jorratzeko aukera eskainiko digu, ohiko albiste, elkarrizketa eta abarrez gain.

Gazteei eskainitako orri bat, komunika-zioari eta ibarreko irratí eta telebistari eskainitako beste orri bina, asteburuari begirako hitzorduen berri luze eta zabal lantzeko orri bi… izango ditu. Azken orrialdea berezia izango da, albiste bitxiz betea eta gure kolaboratzaile Mikel Iriza-rren *Piperrautsa* ere jasoko duena.












### JAKIN BEHARREKOAK

**> DENAK BATERA LANEAN**
GOIENKARIA berria egiteko, Bergarako egoitzan batuko da prentsako kazetari eta maketagile taldea. Alde horretatik izango da aldaketarik; izan ere, orain arte hainbat edizio izan ditugunez, haiek Arrasate, Bergara eta Aretxabaletako egoitzetan egin izan dira. Aurrerantzean, talde ia guztia Bergaran batuko da, eta Arrasaten eta Aretxabaletan kazetari bana izango dira.

**> KOLABORATZAILE UGARI**
GOIENKARIA astero egiten dugun kazetari eta maketagile taldeaz gain, beste hainbat kolaboratzai-lek jardungo du aldizkarian, eta produktua aberastu.

Iritzi emaileak, ilustratzaileak, informazio emaileak… Iritzi orrietan ez ezik, herrietakoetan eta *Goienka2a*-n ere izango dugu kolaboratzaile iritzi emaile sare zabala, eta askotariko ikuspun-tuak eskainiko dizkigute.

**> PARTE-HARTZEA**
Irakurleen parte-hartzea bultzatu nahi dugu sail berriekin. Esatera-ko, herritarrek galdera egin ahal izango diete arduraren bat dutenei; eskualdean astean barrena ateratako irakurleen argazkiak argitaratuko ditugu; gorian dauden gaien gaineko iritzia eman ahal izango dute *Goiena.net* atariaren bidez…

**> PUBLIZITATEA: BI PREZIO**
Edizio bakarrekoa izango bada ere, iragarleak aukeratzen duen espazioaren arabera, barruko orrietan izan arren, bi prezio izango dira: bata orrialde oroko-rretarako eta bestea, herrietako orrietarako eta iragarle txikienda-ko propio sortua.

**> BANAKETA AZKARRAGO**
Edizio bakarrekoa izateak ahalbidetuko du banaketa azkarrago hasteak; izan ere, inpresio orduak asko murriztuko dira Iruñeko errotatiban. Ondo-rioz, hainbat herritan banaketa egubakoitz goizean hasiko da, iluntzerako amaitua egon dadin ibarreko herri guztietan.

**> GAIETAN ADITUAK**
Produktua hobetzeko, hainbat gaitan espezialduak izateko bokazioa izango dute gure kazetari taldeek: kirolean, kulturan, herrietako informazioan, azpiegituretan…

• Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
• Baldintza ezin hobeak

Tel.: 943 76 19 95
BERGARA

Servimasa
Sukalderako altzariendako osagarriak

FAGOR
etxetresna elektrikoak

*Garai berriak, erronka berriak...aurrera GOIENKARIA!*

# Honakook egiten dugu GOIENKARIA

Kazetariek ez ezik, maketagileek, komertzialek, banatzaileek, idazkaritzakoek... ere egiten dute GOIENKARIA. Hona hemen prentsa adarreko lantaldea osatzen duten profesionalak, denak elkartuta.

**GOIENKARIA** > BERGARA
Profesional talde gazte baina aldi berean esperientziaduna da GOIENKARIA egiten duena. Baliabide tekniko aurreratuenak erabiliz eta auto-edizioa oinarri, gurean gertatutakoa inork baino sakonago jorratzeko bokazioa dauka.

**EGOITZA NAGUSIA**
Goienak hainbat egoitza dauzka: telebistarena Arrasaten dago; zerbitzu orokorrena, publizitatearena eta idazkaritzarena Arrasaten ere bai, Saiolan eraikinean, eta prentsarena Bergaran. Orain arte ez bezala, prentsako lantaldeak elkarren ondoan egingo du lan, talde eginez, sinergiak hobeto aprobetxatze aldera. Han izango dira kazetari eta maketagileak. Horretaz gain, Arrasaten eta Aretxabaletan kazetari ordezkari bana izango dira.

**HERRI BAKOITZAK BERE KAZETARIA**
Herri bakoitzak izango du bere kazetaria. Horrek esan nahi du herrietako berriemaile bereziak izango direla.



**Amaia Mundiñano** Altsasuarra. Komertziala

**Sergio Azkarate** Arrasatearra. Testu zuzentzailea

**Marta Leturia** Oñatiarra. Harpidetza eta banaketa arduraduna

**Iker Barandiaran** Arrasatearra. Kazetaria

**Iñaki Iturbe** Bergararra. Diseinu arduraduna

**Imanol Elortza** Arrasatearra. Komertziala

**Eneko Azkarate** Bergararra. Zuzendaria

**Irati Agirreazaldegi** Elgoibartarra. Kazetaria

**Oihana Elortza** Oñatiarra. Kazetaria

**Alex Azkarate** Bergararra. Maketagilea

**Ziortza Martin** Bilbotarra. Komertziala

**Mireia Larrañaga** Bergararra. Komertziala

**Xabi Urtzelai** Arrasatearra. Kazetaria

**Itsaso Berezibar** Arrasatearra. Komerziala

**Aintzane Irizar** Oñatiarra. Kazetaria

**Edu Mendibil** Bergararra. Kazetaria

**Mirari Altube** Aretxabaletarra. Kazetaria

**Ubane Madera** Soraluzetarra. Kazetaria

**Leire Kortabarria** Oñatiarra. Kazetaria

EMUN
LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA



HIZKUNTZA AHOLKULARITZA ETA EUSKARAZKO ZERBITZUAK:
- Enpresa eta erakundeen premiei egokitutako euskara planen kudeaketa
- Itzulpenak
- Euskara formazioa

Uriburu 9, behea 20500 ARRASATE Tel.: 943 711 847
Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 ANDOAIN Tel.: 943 300 978
emun@emun.com
www.emun.com

# Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## 2005-2009rako HELBURUAK

- Euskararen erabilera sustatu eta indartu.
- Hizkuntza politika zehar-lerrotzat jo Eusko Jaurlaritzaren baitan.
- Arlo sozio-ekonomikoan eragin lan munduan euskara gehiago erabiltzeko.
- Euskara bera modernizatu eta normalizatu.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan euskararen erabilera areagotu.
- Helduen alfabetatze-euskalduntzea gaurko beharretara egokitu.
- EBPN garatu.
- Herritarren hizkuntza eskubideak jagon.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA

Zehaztasun gehiago nahi badituzu:

**www.euskara.euskadi.net**



# Banaketa profesionalizatzen

Idatzizko hedabide baten, banaketak dauka erabateko garrantzia. Eta, gure kasuan, harpidetza bidez etxez etxe banatzen dela kontuan izanda, are eta garrantzitsuagoa da banaketa ondo egitea.

GOIENKARIA > BERGARA

GOIENKARIAren sorreratik, lehentasuneko gaia izan da banaketa modu egokian egitea; produktua Iruñeko errotatibatik gure ibarrera ahalik eta azkarren garraiatzeaz gain, irakurleari behar den moduan eta garaiz helaraztea. Eta, horretan dihardugu, etengabe, hobetze prozesuan buru-belarri.

Gaur egun bi egunetan banatzen dugu GOIENKARIA: egubakoitzetakoa, doan, eta astelehenekoa, urteko harpidetza kuota ordaintzen dutenei. Horretaz gain, astelehenekoa ohiko egunkari saltokietan eros daiteke; guztira, ibarreko 30 salmenta puntutan.

**IA 100 NESKA-MUTIKO**

Orotara, 92 lagunek dihardute astero GOIENKARIA banatzen; egubakoitzetakoa 82 lagunen artean banatzen da eta astelehenekoa 17 lagunen artean. Esan behar da, hala ere, zazpi lagun ari direla biak banatzen, astelehenekoa eta barikukoa.

Banatzaile gehienak, egubakoitzetakoan dihardutenak batez ere, neska-mutiko gaztetxoak dira. Dirutxo baten truke jarduten dute. Zerbitzuak nahiko ondo funtzionatzen duela esan genezake, salbuespenak salbuespen, baina kontratupean ez aritzeak arazoak sor diezazkioke Goiena bezalako enpresa bati. Hori dela-eta, Goienak erabakita dauka banaketa prozesua profesionalen esku uztea, eta horretan dihardu.

**Egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAren banaketa**

| Herria | Egub. Goienk. | Astel. Goienk. |
|---|---|---|
| Gatzaga | 96 | 17 |
| Eskoriatza | 839 | 212 |
| Aretxabaleta | 1.480 | 456 |
| Arrasate | 6.842 | 1.295 |
| Aramaio | 480 | 48 |
| Oñati | 2.394 | 816 |
| Bergara | 4.832 | 1.250 |
| Antzuola | 608 | 192 |
| Elgeta | 409 | 80 |
| Kanpora | 860 | 70 |
| **Guztira** | **18.840** | **4.436** |



GOIENKARIA garaiz eta ondo banatzeko etengabe gabiltza hobetzen. GOIENKARIA

**PROFESIONALIZATZEKO BIDEAN**

Oraingoz, proba gisa, bost lagun ari dira Oñatin, Eskoriatzan eta Antzuolan. Herri horietan banatzaileak kontratupean daude, eta bai egubakoitzetakoa eta baita astelehenekoa banatzen dituzte.

Etorkizunean, baina, profesionalez osatutako banaketa taldea edukitzea da asmoa, eta, horretarako, baliteke banaketa enpresa bat sortzea. Horretantxe dihardu Marta Leturia GOIENKARIAko harpidetza eta banaketa arduradunak. "GOIENKARIA ganoraz banatu nahi badugu eta gure bezeroei zerbitzu ona eskaini, ezinbestekoa da bide horri eustea", esan digu Marta Leturiak.

Aurtengo urte amaierarako banatzaile profesionalez osatutako lantaldea osatuta edukitzea da Goienaren helburua eta gaur egun noizbehinka banaketarekin sor daitezkeen arazoak —norbaiti ez banatzea, eta abar— saihestea. Horixe izango da aro berrirako helburua.

Orainarte bezala, zuen erronka berriak ilusioz eta gogoz jarraituko ditugu.
Egin bide luzea, GOIENKARIA berria.

eskoriatzako udala

# Bost urte, hamaika aldaketa

Bost urte joan dira GOIENKARIA sortu zenetik. Aldaketa asko izan dira eskualdean, euskarazko prentsaren panoraman: bateratze prozesua, *Asteleheneko Goienkaria*-ren sorrera...

GOIENKARIA > BERGARA

Bost urtean aldaketa eta egokitze ugari izan ditu GOIENKARIAk. Betiere irakurleei begira, hobetze prozesu etengabean murgildu gara. Hona hemen GOIENKARIAk izan dituen aldaketak.

**HASTAPENAK**

Ez GOIENKARIA eta ezta Goiena ere nekez uler daitezke haien aurretik urte askoan lanean zebiltzan ibarreko herri aldizkariak barik. Izan ere, haiek erein zuten tokiko informazioaren premia gurean. Ohitura batzuk sortu zituzten, eta, hala, 2000ko abenduan sortu zen eskualde osorako lehen aldizkaria, egunkari itxurako GOIENKARIA.

**GOIENKARIAK ETA HERRI ALDIZKARIEK BAT**

2001eko urriaren 19an, Debagoieneko herri aldizkari guztiek formatua aldatu zuten; hain zuzen, DIN A-4 formatutik pasa ziren DIN A-3 formatura (egunkari itxurakoa). Hala, GOIENKARIArekin bat egin zuten, haren barruko eranskin moduan.

Formatua bateratzeaz bat, denak asteroko martxan jarri ziren eta aldizkaririk ez zegoen herrietan sortu egin ziren, herri bakoitzak berea izan zezan.

Aldizkariak hiru multzotan batu ziren. Hiru multzo horiek hiru edizio ezberdin osatu zituzten eta herri bakoitzean jasotzen zuten norbere herriko edizioa, ibarreko herri guztiendako komuna zen GOIENKARIArekin batera. Salbuespena zen Oñati, han GOIENKARIA bakarrik jasotzen zuten-eta.

**2000ko abenduan sortu zen eskualde osorako lehen aldizkaria, egunkari itxurako GOIENKARIA**

**2001eko urrian, ibarreko herri aldizkari guztiak astekari bihurtu ziren**

**BI EDIZIO**

Iaz, apirilaren 8an, herrietako edizioak birmoldatu eta bi ediziotara pasa ziren. Batean integratu ziren Leintz aldekoak eta bestean, *Berrigara, Kontuola* eta *Goibekokale* eta Oñatiri eskainitako orrialde bat, *Oñati* izenekoa.

**EDIZIO BAKARREKOA**

Datorren astean abiatuko dugu GOIENKARIA berritua. 2003ko abenduaren 22an, Arrasateko Santamas egunean, *Asteleheneko Goienkaria*-ren zero zenbakia argitaratu genuen eta 2004ko otsailaren 19an lehenengo zenbakia. Harrezkero, astelehenero argitaratzen dugu, ostiralekoaren osagarri. Batik bat, asteburuan gurean gertatutakoaren berri ematen du 32 orriko edizio bakarreko horrek.



Estepan Plazaola > Goienako presidentea

## 656 'Berrigara'-ren ondoren...

1990eko abenduaren 14a. *Berrigara*-ren lehenengo zenbakia heldu zaigu. Udal Liburutegikoei eraman diegu ale bat. Mila Agirrezabal liburuzainari espero zuena baino dezentez erkin, eskas, pobreagoa pentsatu zaio: 16 orrialde, zuri-beltzean...

1991ko otsaila. Boluko Haltzari altzari denda. Etxe berriko sukaldea jantzi guran joanak gara. "Oraintxe etorri dia rebistakuak publizidade eske. Esan dotset jarriko dotsetela; holakuei be lagundu egin bihar jakue...", esan digu Mila dendari atseginak, askorik pentsatu barik bere dendarentzako ere laguntza izan litekeela. 1.500 pezetako modulu bakarreko iragarkia egingo du. Handik 2 urtera hilero atzeko azalean orri osoko koloretako publizitatea egiten hasiko zen.

**"2006ko otsailaren 3a. Badaukan/k zeini eskerrak emon, etxan/k faltako zer eginik"**

2005eko abendua. CIESen audientzia neurketak dioenez, astean *Goienkaria* irakurri dute debagoiendarren %61,5ek. %65,6 da Debagoienean euskalduna eta %10 ia euskalduna. Prentsako publizitatean 450.000 euro inguru jaso dira 2005ean.

2005eko abendua. 12-14 urteko ikasleei galdeketa bat pasatu diegu Udaleko Euskara Zerbitzutik Bergarako bi ikastetxetan. Egunkari-irakurleen %89k gaztelaniazkoa irakurtzen du.

2006ko otsailaren 3a. 656 *Berrigara*-ren ondoren, ongietorri, *Goienkaria* berritua. Badaukan/k zeini eskerrak emon, etxan/k faltako zer eginik.

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK






• Arotz lanak orokorrean
• Horma armairuak
• Altzariak
• Leihoak
• Ateak











ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04


AIRE, AIRE !!!
EUSKARARI
Gipuzkoako Foru Aldundia

# Goienka2a

Egubakoitza / 2006ko urtarrilaren 27a

Kultura eta aisialdia

Urtarrilaren 27tik otsailaren 3ra




**MARIO SANZ**

Oraingo astean zen 117. telefonoa jasotzekoa

Camacho farmazia itxi zutenean, hango telefonoa Mariori eman zioten. Hala hasi zen 68 urteko bergarar hori telefonoen bilduma egiten. 116 aparailu ditu etxeko bulegoan eta bazter askotan. Antikuarioen erakusketetan aurkitzen ditu; erosi eta gero, ordea, konpontzera eramaten ditu, eta denak dabiltza. "Etxera deitzen dutenean, zazpi telefonok jotzen dute", diosku. 1898. urteko telefonoa du zaharrena; horrez geroztik, diskoko telefono modelo asko ditu. Ikustekoa da bere bilduma. Mariok dio ez duela faboritorik, guztiak gustatzen zaizkiola.

**Hamar urtez dihardu bilduma egiten • Telefono zaharrena 1898koa da • Aste honetan da bat jasotzekoa • Mila bat liburu ere baditu**

# Norberarendako eta erakusteko

## Bildumak egitea gustuko duten hainbat debagoiendarrek euren emaitza erakusten dute

Bildumak egiten dituzten zenbait debagoiendar gertutik ezagutu gura izan ditugu aste honetan. Bildumatzen dutena desberdina da kasu bakoitzean, baina badituzte, bai, antzekotasun batzuk: guztien gainetik, euren bilduma zein gustuko duten eta zein ondo zaintzen duten. Bilduma egiteak konstantzia eskatzen du, eta debagoiendar hauek guztiek horrelaxe jardun dute. Azkenean, miresteko moduko altxorra osatu dute. Guztiek atseginez erakutsi dizkigute euren bildumak, baina gehienek ez dute inoiz erakusketarik egin, nahiz eta aukerak izan dituzten; bilduma, lehenik, norberak gozatzeko da eta.

Bestetik, badirudi bilduma egitea izaerarekin bat doala, izan ere, elkarrizketatu ditugun bildumagile guzti-guztiek, objektu mota nagusiaz gain, bigarren edo hirugarren bildumaren bat ere badute. /15

LEIRE KORTABARRIA

ARGAZKIA: LEIRE KORTABARRIA



# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Saizar

Kale-Zahar auzoa 39 / USURBIL
943 36 22 28

- Urte guztian irekita
- Txotx garaian sagardotegiko menua sagardotegian
- Jatetxean urte guztian kartara
- Igande gauean eta astelehen eguerdian itxita
- Bertako janaria
- 500 lagunendako lekua eserita
- **"Tolare" sagardotegia**



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia / HERNANI
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deituta
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
  Egubakoitzetan eta zapatuetan egun osoa zabalik
  Domeketan, eguerdira arte zabalik
  Astelehenetan, itxita
- **"Tolare" sagardotegia**



## Iparragirre

Iparragirre baserria / HERNANI
943 55 03 28 / 639 05 33 10

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gauez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- "Zabadiz" banatzaile ofiziala
- **"Tolare" sagardotegia**



## Iturrieta

Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 605 70 64 51

- Urte guztian zabalik ostegunetik igandera.
- Sagardotegiko menua.
- Bertako janaria.
- 100 lagunendako lekua, eserita edo zutik.



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- 55 lagunendako lekua



## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- **"Tolare" sagardotegia**



## Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Urte osoan egunero eguerdian eta gauean zabalik
- Igande gauetan itxita
- Enkarguz: Arkumea eta txarrikumea burduntzira eta arraina parrillan
- Berritua eta handiagoa
- Urte osoan txotxetik eta botilatik sagardoa
- **"Tolare" sagardotegia**



## Otatza

Otatza baserria / ZERAIN
943 80 17 57

- Maiatz bukaerara arte zabalik
- Domeka gaua eta astelehena egun osoa itxita
- Bertako janaria
- Aste bukaera eta jai egunetan egun osoz zabalik
- 170 lagunendako lekua eserita
- Eguerdietan enkarguz zabalik talde handiendako
- **"Tolare" sagardotegia**



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz
- Bertako janaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako III. Sagardo lehiaketako irabazlea 2004an
- Botilak salgai urte osoan
- **"Tolare" sagardotegia**

ZALETASUNAK/ **DEBAGOIENEKO BILDUMAGILEAK**

# Gordetzeko eta erakusteko altxorra

MOTA ASKOTAKO BILDUMAK EGITEN DITUZTE DEBAGOIENDARREK. URTE ASKOKO ZALETASUNAREN FRUITUA IKUSTEKO MODUKOA DA

LEIRE KORTABARRIA

**Garai gabeko zaletasuna dira bildumak, bizitza osoan edo, behintzat, urte askoan hedatzen direnak. Bildumagile on bat altxorra handituz joaten da kosta ahala kosta, harik eta erakusteko moduko bilduma egin arte. Hori da elkarrizketatu ditugun debagoiendarren kasua.**

Debagoiendar asko dira bildumagileak; aste honetako GOIENKARIAn batzuk agertzen dira. Denetariko gauzak batzen dituzte, baina badituzte antzekotasun batzuk: nola ez, euren bildumak maite dituzte eta asko zaintzen dituzte, eta ez dituzte bertan behera uzten.

Elkarrizketatu ditugun guztiek urte asko daramatzate bilduma egiten, eta horretarako arreta berezi bat garatu dute. Esate baterako, Asier Bergaretxek, eskuko egutegiak batzen dituen arrasatear batek, hauxe diosku: "Joaten naizen denda edo tabernetan, beti begiratzen dut ea egutegirik daukaten". Mari Karmen Larrañaga bergararrak zinemako esku-programak batzen zituen, kalean ematen zituztenekoak; dagoeneko ez dira egiten, baina ondo gordeta eta klasifikatuta ditu 2.000 inguru programa. "Inoiz zerbait egin beharko dut horiekin; erakusketaren bat edo, baina oraindik ez naiz animatu", diosku berak.

**EROSI, BAINA EZ INTERNETEZ**

Izan ere, batzuetan, bildumako objektuak aurkitu egiten dira; baina, gehienetan, horien ehizara joan behar izaten da, eta gure elkarrizketatuak horren adibide dira. Horrelakoetan, beste bildumagile batzuengana jo eta gauzak trukatu, edo enkante eta erakusketetara joan eta diru-inbertsioa egiteko gertu egon behar da. Mario Sanz bergararrak ondo daki hori: telefonoak batzen ditu, eta garestiena 2.100 eurotik gora ordaindu du; merkeena, 90 euro inguru. Pablo Beitia aramaioarrak txanponak eta billeteak dauzka, eta gehienak enkanteetan erosten dituenez, irteerako prezioa eta prezio gomendatua bai, baina jomugako prezioa zein izango den ez dago jakiterik.

Beste antzekotasun bat badute debagoiendar bildumazaleek: ez dute horretarako Internet erabiltzen eta leku batetik bestera ibiltzea dute gustuko. Mario Sanzek dioen bezala, "Internet izan nuen hiru hilabetez, eta aspertu egin nintzen. Badakit enkanteak eta daudela hor, baina ez ninduten konbentzitzen".



## PABLO BEITIA

Txanpon eta billeteen bilduma egiten du

Aramaioarra da Pablo Beitia. Erretiratua dagoenez, bere bilduma zaintzeko eta pieza gehiago lortzeko aukera gehiago ditu. Piezak Madrilgo eta Bartzelonako enkanteetan erosten ditu, katalogoz, baina baditu Debagoienean aurkitutakoak ere: besteak beste, Bergarako Seminarioan aurkitutako medaila bat.

"Kalitateak balio du, kantitateak baino gehiago", dio Pablok; hala, dituen piezak oso maite ditu. Nafarroako Erreinuko eta Errege-Erregina Katolikoen aroko txanpon batzuk batu ditu, esate baterako.

**Antzinako txanponak eta billeteak batzen ditu • Enkanteetan erosten ditu gehienak; baita GOIENKARIAn ipinitako iragarkien bidez bateren bat**



## MIKEL UNTZILLA, LUIS MAIZTEGI, FERNANDO GARCIA

Seiluen bilduma egiten dute, eta filatelia elkartea ere badute

Seiluen bilduma egitea urte askoko lana da, eta, hainbeste daudenez, selektiboa izan behar dela dioskute Oñati eta Legazpiko hiru lagun hauek: "Herrialdeka, gaika… espezializatu behar duzu", esaten dute. Mikelek, adibidez, posta-zigilu konkretu batzuk daramatzaten kartazalen bilduma egiten du.

Materiala herrialde bakoitzeko Posta zerbitzura harpidetuta, truke bidez, dendetan… lortzen dute. Horrez gain, albumak, orriak… ere erosi egin behar dira. Oro har, dirua inbertitzeko gertu egon behar dela esaten dute hiru lagunek.

**Luisek umetatik egiten du bilduma; Fernandok 20 urtetik gora darama • Mikelek posta-zigiluak bildumatzen ditu • Erakusketak egin dituzte**



## MARI KARMEN LARRAÑAGA

Zinema-programak dauzka, 2.000 inguru

Zinemazalea da Mari Karmen Larrañaga bergararra txikitatik, eta gaur egun desagertuta dauden zinema-programak gordetzen ditu ordutik. Familiakoek emandakoak ere baditu. Film klasikoak hemen eman zituztenekoak dira. Bitxikeriak ere baditu: esaterako, *Lo que el viento se llevó* filma Espainiako estatuan estreinatu zutenekoa.

Programa horien bildumagileen erakusketetan egon izan denean, besteek diru asko eskaini izan diote Mari Karmeni bere programengatik, baina berak ez ditu, ez, saltzeko.

**Bergaran eta beste leku askotan jasotzen zituen zinemako esku-orriak • Zinemako izar handien kromoen albuma eta poster batzuk ere baditu**



## ASIER BERGARETXE

Eskuko egutegiak dauzka, 1.500 inguru

Banaka batzuk zituela, beste batzuekin trukatzen hasi… horrelaxe hasi zen Bergaretxeren bilduma. Gaur, 10 urte igarota, 1.500 eskuko egutegi inguru dauzka, estilo guztietako irudiekin. Hori bai, zenbat eta gehiago batu, orduan eta zailago zaio berriak aurkitzea: "Arrasaten ia ez dut berririk aurkitzen; Gasteizera joaten naiz, beste bildumagile batzuengana, trukea egitera", dio Asierrek. Aldizkarien bidez ere aurkitu izan ditu egutegiak.

Egutegi bildumagile moduan, azken asteak une oparoa izan ditu Asierrek bere bilduma aberasteko.

**Eskuko egutegien bila joaten da dendetan, tabernatan… • 1996 inguruan hasi zen bilduma egiten • Eskalako autoen bilduma ere egiten du**

# Urt. 27–Ots. 3

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

## DEIAK

### ANTZUOLA

► **Aratusteetako dantza** ikasteko lehen entsegua eguaztenean, otsailak 1, egingo dute Eguzki auzoko lokalean, 20:30ean.

### ARETXABALETA

► **Kurtzebarri eskolak,** matrikulazio garaia datorrela eta, bere proiektuaren gaineko batzar informatiboak emango ditu eguenean, otsailak 2, 18:00etan euskaraz eta 19:00etan espainolez. Norbaitek ezin badu joan, 943 79 00 49 zenbakira deitzeko eskatzen dute.

### ARRASATE

► **Mahai-futbol federazioak** gaur, egubakoitza, hasiko ditu Las Vegaserako txapelketako kanporaketak. Debagoienean ere jokatuko dituzte.

► **Ate ireki jardunaldia** egingo dute otsailaren 2an, eguena, Goi Eskola Politeknikoan, 17:30ean.

► **Zahar-Berri** proiektuko Berba taldeak Txillidalekura irteera egingo du bihar, zapatua. Arbolapetan batuko dira 10:00etan, eta autoz joango dira, baina denen artean ordainduko dute gasolina eta sarrerak. Izena emateko, deitu AEDra, AEKra edo udal euskaltegira.

► **San Felipe Apostol** elkarteak batzar nagusia egingo du etzi, domeka, Amaia antzokian, 12:15ean. Aurretik, 11:00etan, hildako bazkideen aldeko meza entzungo dute parrokian.

### BERGARA

► **EHNA** egiteko aukera dago bihar, zapatua, Irizar jauregian, 11:30-13:30 ordutegian. 15 euro, hiru argazki eta errolda-agiria eraman behar dira.

► **Santa Ageda bezperako entseguak** egingo dituzte Aranzadi Ikastolako gurasoek urtarrilaren 30ean eta otsailaren 2an, plazako eraikinean, 19:00etan.

► **Xabier Arzalluzek** *Asi fue* liburua aurkeztuko du eguenean, hilak 2, Miguel Altuna institutuan, 19:30ean.

### OÑATI

► **Eski irteerak** antolatu ditu Aloña Mendiko Eski Sailak. Otsailaren 10, 11 eta 12an, Baqueirara joango dira; martxoaren 17, 18 eta 19an beste irteera bat egingo dute; eta Aste Santuan Tiñesera, Alpeetara, joango dira.

## IKUSKIZUNAK

### ARRASATE

► ***Los piratas de Alejandría*** antzezlana egingo du Oihulari Klown taldeak gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 00:00etan.

### ELGETA

► **Zinema musikatu ikuskizuna** egingo du Medin Peiron bartzelonarrak gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean. Buster Keatonen *El maquinista de la general* film mutua emango dute, eta Peiron-ek pianoa joko du.

## IKASTAROAK

### ANTZUOLA

► **Ardo-dastatze eta dantza ikastaroak** antolatu ditu Udalak, eta izena emateko aukera badago udal bulegoetan. Ardo-dastatze ikastaroa otsailaren 2an, eguena, hasiko da. Eguenetan izango da, 18:30-21:00. Izenemate epea gaur, egubakoitza, bukatzen da. Bestetik, denetariko dantzen ikastaroa emango dute otsailaren 11tik aurrera, hilean behin, 16:30-19:00. Izenematea otsailaren 3an bukatuko da.

### ARETXABALETA

► **Eski alpetarra** egiteko irteera antolatu du Murrukixu Mendi Taldeak otsailaren 18rako eta 19rako. Izena emateko, jo euren egoitzara martitzenetan, 19:00-20:00 ordutegian.

► ***Finantza erak-ekin lan egin*** delako Internet ikastaroa emango dute KZgunean. Lehenengo zatia hilaren 30ean, astelehena, emango dute, eta bigarrena, hilaren 31n, martitzena, 18:00-20:00 ordutegian.

► **Lanean dauden langileendako ikastaroak** antolatu ditu Aretxabaletako institutuak. Guztiz diruz lagundutako ikastaroak dira. Fabrikazio elektromekaniko, metal-eraikuntza, tresneria elektronikoa eta beste batzuk emango dituzte. Argibideak, institutuan (943 79 79 00).

► **Kontakt-inprobisazio dantzen** bigarren ikastaroa egiten ari dira, aurreko taldeko batzuekin eta parte-hartzaile berriekin ere.

### ARRASATE

► **Posta elektronikoaren** gaineko mintegia antolatu du KZgunean otsailaren 1erako, eguaztena, 11:00-13:00 ordutegian.

► **Gazteendako ikastaroak** antolatu ditu Gazte Bulegoak: txalaparta, alboka, argazkigintza digitala eta sabel dantza. Matrikula 20 euro da, 12 ikasle eta langabeendako. Argibideetarako, jo Gazte Bulegora edo deitu 943 77 00 65 telefonora.

► **Ekin Emakumeak elkarteak** honako ikastaroak antolatu ditu: eskulanak, nork bere burua defenditzeko ikastaroa, hip-hop eta funky dantzak eta orratz-lanak. Izena emateko, deitu 943 79 83 70 edo 651 70 79 36 telefono zenbakietara.

### DEBAGOIENA

► **Yoga ikastaroak** antolatu ditu Kutxak, eta izena emateko aukera dago oraindik gaur, egubakoitza. Oñatin, otsailaren 20an hasiko da, eta Arrasaten, otsailaren 24an. 36 ordukoak izango dira. Izena emateko, deitu 902 54 00 40 telefonora edo jo *www.kutxasocial.net* webgunera.

### ESKORIATZA

► ***Etxetik eros ezazu*** delako ikastaroa emango dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 11:00-13:00 ordutegian.

### OÑATI

► **KZgunean** honako ikastaroak emango dituzte: *Etxetik eros ezazu* delakoa (gaur, egubakoitza, 11:00-13:00) eta *Flashget* (hilak 3, egubakoitza, 11:00-13:00).

**ASPEPELOTA**
**Goi mailako pilota ikuskizuna**

Galarza V.a - Nalda III.a / Del Rey - Laskurain

Gonzalez - Lasa III.a / Bengoetxea VI.a - Patxi Ruiz

Larralde - Arizmendi / Berasaluze IX.a - Zubieta

- **Eguna:** igandea, urtarrilaren 29a.
- **Ordua:** 17:00etan.
- **Lekua:** Bergarako Udal Pilotalekuan.

aspepelota.com

**Erreserbak** baita interneten ere: www.aspepelota.com



► ANTZERKIA

### UMEENDAKO HIRU IKUSKIZUN EGINGO DITUZTE ASTE BUKAERAN

Umeek hainbat estiloko ikuskizunekin gozatzeko aukera izango dute aste bukaera honetan. Hala, bihar, zapatua, bi emanaldi daude: bat, Pirritx eta Porrotx pailazoen Maite Zaitut ikuskizun dibertigarria, Aretxabaletako kirol etxean, 17:00etan. Sarrerak, aldez aurretik erosita, 4 euro kostatzen dira; egunean bertan, 5. Bestetik, egun berean, Arrasateko Amaia antzokian, Einstein ikuskizuna izango dute 6-12 urte bitartekoek. Zientzialari handiaren pertsonalitatea eta lana umeei gerturatzea da helburua, magiaz betetako ikuskizun baten. Azkenik, etzi, domeka, Cantervilleko Mamua antzezlana izango da Oñatiko Santa Ana antzokian. Amerikar familia bat mamu baten gaztelura bizi izatera joaten denean hasten da istorioa.

**Non:** Aretxabaletan, Arrasaten eta Oñatin. **Noiz:** bi ikuskizun bihar, zapatua; beste bat etzi, domeka.

► **Dantza afrikar ikastaroa** antolatu dute otsailaren 25ean eta 26an egiteko, baina izenematea otsailaren 10ean bukatuko da. Horretarako, jo Gazte Informazio Bulegora (10:00-13:00 edo 17:00-20:00). Telefonoa: 943 71 82 57; e-posta: *gip@oinatigazteleku.com.*
► **Chi-kung** ikastaro intentsiboa emango du Estibaliz Díez-Caballerok otsailaren 11n Txantxiku ikastolan (10:00-14:00). Izena emateko, deitu 635 72 08 36 telefonora.

# OSPAKIZUNAK

## ARETXABALETA

► **Erlijio bizitzaren eguna** ospatuko dute otsailaren 1ean, eguaztena. Hala, Kontzeptzionistenean, erlijio bizitzaren aldeko otoitzaldia deitu du Artzipestal-deko Bokazio Pastoraltzako Batzordeak, 09:00etan.
► **San Blas eguna** ospatuko dute datorren egubakoitzean, otsailak 3, Apotzaga-Etxebarri auzoko Sailuente ermitan. Meza esango dute lehenengo, eta jatekoak bedeinkatuko dituzte gero. Bestetik, parrokian ospakizunak izango dira 11:30ean eta 19:00etan.

## ESKORIATZA

► **Kandelario egunean,** otsailaren 2an, ohiturari jarraituta, iaz bataiatutako umeak aurkeztu eta kandelak bedeinka-tuko dituzte parrokian, 19:00etako mezan.

# MUSIKA

## ARRASATE

► **Asgarth eta UK Bill** taldeek kontzertua egingo dute gaur, egubakoi-tza, gaztetxean, 22:30ean.
► **Sonic Revolution, The Little Kiss eta Empleado del Mes** taldeek joko dute bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 23:00etan. Gero, 03:00etan, Gorkaren emanaldia egingo da. Sarrera, doan.

## BERGARA

► **VII. Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren** barne, Silvio Celeghin organo-joleak eta Alberto Frugoni tronpeta-joleak kontzertua egingo dute bihar, zapatua, San Pedro parrokian, 20:00etan.
► **Obituary** taldeak kontzertua egingo du etzi, domeka, Jam aretoan, 19:00etan. Samael eta Maroon ere arituko dira.

# Zinema

## ARAMAIO

■ KULTURA ETXEA

***La historia del camello que llora***
Egubakoitza: 22:00.

## ARRASATE

■ AMAIA ANTZOKIA

***King Kong***
Egubakoitza: 20:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

***Chicken little***
Domeka: 17:00.

***El niño***
Eguena: 20:30.

## ELGETA

■ ESPALOIA ANTZOKIA

***Karramarroen uhartea***
Domeka: 17:30.

***Delicatessen***
Eguaztena: 21:30.

## OÑATI

■ KULTURA ETXEA

***Las crónicas de Narnia***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Perder es cuestión de método***
Eguena: 20:00.

## EIBAR

■ UNZAGA

***Match point***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ RIALTO

***El infierno espera***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

## GASTEIZ

■ GURIDI

***Las crónicas de Narnia***
17:00.

***Crash***
17:00, 19:45, 22:30.

***Alone in the dark***
19:45, 22:30.

***El rey***
17:00, 19:45, 22:30.

***Memorias de una geisha***
17:00, 19:45, 22:30.

***Teresa de Calcuta***
20:00, 22:30.

***Secretos de familia***
17:30, 20:00, 22:30.

***Esta abuela es un peligro 2***
17:30, 20:00, 22:30.

***La joya de la familia***
17:30.

■ FLORIDA-GURIDI

***Brokeback mountain***
17:00, 19:45, 22:30.

***Iluminados por el fuego***
17:30, 20:00, 22:30.

***Match point***
19:45.

***Bordadoras***
17:30, 22:30.

***Manuale d'amore***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30.
Zapatua eta domeka: 19:45, 22:30.

***Escondido***
17:00, 19:45, 22:30.

***Cuánto me amas***
17:30, 20:00, 22:30.

***El jardinero fiel***
17:30, 20:00; 22:30.

***Volando voy***
Zapatua eta domeka: 17:00.

■ ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

***Doce fuera de casa***
20:00, 22:00, 00:30.

***El tiovivo mágico***
17:00, 18:00.

***Esta abuela es un peligro 2***
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

***Aeon flux***
16:00, 18:00, 20:00.

***Jarhead***
22:00, 00:30.

***La caverna maldita***
22:45, 00:45.

***Terror en la niebla***
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

***Los dos lados de la cama***
20:00, 22:10, 00:30.

***King Kong***
16:00, 19:20.

***Las crónicas de Narnia***
16:00, 19:00.

***Alone in the dark***
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

***Olentzero y el tronco***
16:00, 18:00.

***Teresa de Calcuta***
22:00, 00:30. 0, 18:00.

***Cuánto me amas***
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ YELMO CINEPLEX-GORBEIA

***Los dos lados de la cama***
20:10, 22:25, 00:35.

***Doce fuera de casa***
12:15, 16:25, 18:25.

***Brokeback mountain***
12:15, 16:00, 18:45, 21:30, 00:15.

***Terror en la niebla***
12:15, 16:05, 18:05, 20:05, 22:05, 00:05.

***King Kong***
12:15, 17:30.

***Crash***
18:05, 20:25, 22:40, 00:50.

***Las crónicas de Narnia***
12:15, 15:45, 18:30.

***Esta abuela es un peligro 2***
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

***Jarhead***
19:15, 21:45, 00:15.

***The jacket***
12:15, 16:10, 18:10.

***Secretos de familia***
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

***Memorias de una geisha***
12:15, 16:10, 19:00, 21:50, 00:40.

***El jardinero fiel***
21:40, 00:20.

***Munich***
12:15, 16:00, 17:30, 19:00, 21:30, 22:15, 00:45.

***Harry Potter y el cáliz de fuego***
12:15, 16:20.

***Match point***
12:15, 15:50, 18:20.

***Aeon flux***
22:00, 00:10.

***La caverna maldita***
20:40, 22:40, 00:40.

***El tiovivo mágico***
12:15, 15:45.

***Chicken little***
12:15.

***La joya de la familia***
20:25, 22:35, 00:35.

***Alone in the dark***
16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Egerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ ÁBACO BOULEVARD

***Doce fuera de casa***
12:15, 16:15, 18:10.

***Esta abuela es un peligro 2***
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

***Crash***
12:05, 17:00, 19:45, 22:05, 00:30.

***Munich***
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

***Aeon flux***
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:25, 00:30.

***La joya de la familia***
12:10, 16:00, 18:05, 20:20, 22:30, 00:45.

***The jacket***
12:00, 16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 01:00.

***King Kong***
12:00, 16:30, 20:00, 23:30.

***Secretos de familia***
12:00, 16:00, 18:05, 20:10, 22:20, 00:45.

***Brokeback mountain***
12:00, 17:00, 19:40, 22:20, 01:00.

***Los dos lados de la cama***
20:05, 22:10, 00:30.

***Las crónicas de Narnia***
12:00, 16:25, 19:25, 22:15, 01:00.

***Memorias de una geisha***
12:00, 16:25, 19:20, 22:15, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Egerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

*King Kong: ●●●● | Match point: ●●●● | El jardinero fiel: ●●●● | El tiempo que queda: ●●● | Oliver Twist: ●●● | Manuale d'amore: ●● |*

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

# KRITIKA

## CRASH

PUNTUAZIOA: ●●

**ZUZENDARIA:** Paul Haggis
**AKTOREAK:** Don Cheadle, Matt Dillon

*Crash*-en gertatzen direnak Los Angelesen kokaturik daude. Filmak gaur egungo gizarteak dituen alderdi txarrak azpimarratzen ditu: pertsonaiak gizaki saminduak dira, ez dau-de euren bizitzarekin gustura, eta barnean nabaritzen duten nahigabearen errua topo egiten duten pertsonei leporatzen diote. Gizakiak bakarrik sentitzen dira eta, aldi berean, mesfidati azaltzen dira eurengana gerturatzen den jendearekin. Arrazakeria giroan nabaritzen da, eta kontatzen zaigun istorioaren motor nagusi bihurtzen da. Filmak gizakien barnean sartu nahi du, eta horrela ikusten dugu nola askotan bizitzan izaten diren ezusteko gertakizunak gizakien konplexutasuna adierazteko balio duten.

Ezin da ukatu *Crash*-ek gaur egungo gizarteari buruzko ikuspuntu interesgarria azaltzen duela. Filma elkarrekin nahastuz doazen istorio txikiz beterik dago, eta istorio bakoitzaren pertsonaiak beste istorioen pertsonaiekin topo egiten dute, guztiekin istorio nagusi edo global bat osatu arte. Baina, nahiz kritiko askoren goraipamen ugari jaso, badira *Crash*-en arazo batzuk: oso film handizalea da, zuzendariak lan handi bat sortu nahi du, eta hori berez ez dago gaizki, baina estiloari eta gaiari dagokionez gehiegi lortu nahi denean, bilatutako helburua oso gutxitan lortzen da. *Crash*-ek badu interesa eta, lorpen partzialak dituen arren, azkenean, gogaitzen duen handikeria sentsazioa transmititzen du.



